



GIPUZKOAKO ENERGIA JASANGARRITASUNAREN ESTRATEGIA 2050 PROIEKTUKO PARTAIDETZAZKO DELIBERAZIO PROZESUKO EMAITZAK
LOTZEKO TXOSTENA

2021eko martxoaren 26ko Foru Aginduaren bidez, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak **Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren Estrategia 2050** Proiektua onetsi zuen, eta, horrekin, jendaurrean jartzeko izapidea hasi zen, baita ukitutako administrazio publikoei eta prozeduran interesa duten pertsonei entzutekoa ere.

Era berean, eta herritarren partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritz, **pardaidetzazko delibrazio-prozesu** bat abiarazi zen, zeinaren **protokoloa** Partaidetzako zuzendaria nagusiaren martxoaren 3ko 1/2021 Ebazpenaren bidez onetsi eta argitaratu baitzen (2021eko martxoaren 5eko GAO).

Prozesu hori apirilaren amaieratik uztailaren hasierara arte gauzatu ondoren, eta aipatutako Foru Arauaren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, uztailaren 19an **prozesuko emaitzen txostena** bidali zitzaion Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiarri. Txosten horrek alderdi hauek jasotzen ditu: eginiko prozesuaren deskribapena, helburuak, ezaugarriak eta faseak, parte hartu duten eragileen zerrenda (Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan inskribatutakoak barne), erabilitako kanalak eta tresnak, egindako bilerak, **aktak eta eragileen ekarpenak**.

Ondoren, aipatutako Foru Arauaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak prozesuari buruzko txostena egin zuen, zeina **Partaidetzako Foru Batzordeari** eta Zuzendaritza Nagusi honi helarazi baitziren uztailaren 23ko bilkuran. Egoitza elektronikoan ere argitaratu zuten, eta, orobat, eman zitzaien haren berri prozesuan parte hartu duten erakunde eta pertsoneri nahiz beste eragile batzuei ere:

Aipatutako Foru Arauaren 18. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz, **Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren Estrategia 2050** proiektuari buruzko Foru Dekretua eztabaidatzen eta izapidetzen jarraitzeko prozesua amaitzeko, Zuzendaritza Nagusi honetako zerbitzu teknikoek **emaitzen loturari buruzko txosten** hau egin behar dute orain. Txostenean, parte hartzeko delibrazio-prozesuan jasotako ondorioen berri ematen da, zeinek eginiko eta alderatu beharreko estrategiaren dokumentuari eragiten baitiote.



Era berean, adierazten da berriarazko alegazioen nahiaezko txostenaren bidez erantzungo zaiela jendaurrean jartzeko izapidearen bidez jasotako bost alegazioei, txosten honetako irizpideekin erabateko koherentzia gordez.

1.- ERAGILEEN EKARPENAK ETA EKARPENEN ONDORIOAK

1.1.- EMAITZEI ETA BALORAZIO METODOLOGIARI BURUZKO GOGOETA OROKORRAK

Adierazi bezala, *prozesuaren emaitzen txostenean* daude jasota eginiko prozesuaren deskribapena, helburuak, ezaugarriak eta faseak, parte hartu duten eragileen zerrenda, erabilitako bideak eta tresnak, egindako saioak, aktak eta eragileen ekarpenak. Hona hemen datu nagusi batzuk:

Guztira **23 saio** egin dira (2 informazio saio eta 21 delibrazio saio), eta guztira **204 parte hartzaile** izan dira (**130 erakunde**):

- Informazio saio orokor bat 2021/04/28an, eragile guztiei irekia.
- Informazio saio bat 2021/05/21ean, Batzar Nagusietako Departamentu Batzordean.
- 18 delibrazio saio, kanpoko eragileentzat:
 - o 5 saio talde politikoekin (EAJ/PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos, PP, PSE) (2021/05/26).
 - o Energia jasangarriaren eta energia pobretasunaren lurralde mahaiaren bilkura bat (2021/05/12).
 - o 8 eskualdeko bilkura (eskualdeko energia mahaietako agenteak eta beste eragile batzuk) (2021/05/17tik 2021/06/14ra).
 - o Saio bat unibertsiteate, zentro teknologiko eta LHko ikastetxeekin (2021/06/1).
 - o Saio bat energiaren sektoreko enpresekin, enpresa eta merkataritza elkarteekin, elkargo profesionalekin, sindikatuekin eta beste hainbatekin (2021/06/3).
 - o Saio bat estrategia eta generoari buruz (2021/06/9).
 - o Saio bat Energiaren Euskal Erakundearekin (2021/07/5).
- 3 delibrazio saio barne eragileentzat:
 - o Saio bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentuen arteko Batzordean (2021/05/27).
 - o Saio bat Jasangarritasun Energetikorako Gipuzkoako Foru Batzordean (Foru Sektore Publikoa) (2021/06/16).
 - o Saio bat Naturklima-Gipuzkoako Klima Aldaketaren Foru Fundazioarekin (2021/06/30).



23 saioetatik **14 online** egin dira (Zoom eta Teams plataformak baliatuz), 8 aurrez aurrekoak izan dira, eta beste bat, berriz, mistoa.

Alpatzekoa da bertan behera utzi zela ekainaren 2ko arratsalderako deitutako delibrazio saioa, Gipuzkoako **ingurumen elkarte, elkarte ekologista eta kontserbazionistekin** estrategia kontratatza bideratua, ez baizen baiezta bertaraterik. Hala ere, erakunde horietako biren ekarpenak jaso dira ingurumen ebaluazio estrategikoaren ingurumen kontsulten bidez, delibrazio prozesuaren aurretik.

Bestalde, **herritarrek beren kabuz parte hartzeari dagokionez**, erregistro fasean (2021/03/03tik 2021/04/24ra) 8 partikular inskribatu ziren; hainbat harreman gestio egin ondoren, horietako bik idatziz bidali zituzten ekarpenak.

Laburpen taula honetan jaso dira partaidetzari eta ekarpenei buruzko datuak:

SAIOA/Beste bide batzuk	PARTE HARTZAILE KOP.	SEXUA	ERAKUNDE KOP.	EKARPEN KOP.
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDITIK KANPOKO LURRALDE ERAGILLEAK	166	87 m / 76 h (+3)	130	231
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAK	38	17 m / 21 h		2
OROTARA (barnekoak eta kanpokoak)	204	104 m / 97 h (+3)	130	233

Bertaratuetatik, kasu bakar batean ere ez dira zenbatu Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko kideak (estrategia proiektuaren sustatzailea da departamentu hori).



Agiri honetan bilduriko ekarpenak gehienbat bilkuretan jasotakoak dira, baina beste batzuk idatziz ere jaso dira.

Sailkatu, azertu eta balioetsi ondoren, txosten honek adierazten du nola hartuko diren kontuan eta, beharrezkoa eta bidezkoa iritzi gero, estrategia dokumentuko zein puntutan egingo diren aldaketak. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko talde teknikoa arduratuko da balioespena egiteaz.

Honela sailkatu dira prozesuko esku hartzeak eta hau izan da horiek kontuan hartzeko metodologia:

- A. Saioetan edo beste bide batzuetatik adierazitako zalantzak argitzea: ez dira txosten honen xede, eta prozesu txostenean eta/edo bilkuretako aktetan kontsulta daitezke.

- B. Ekarpenak berak, estrategia osatzen duten gaiei buruzkoak: horiek osatzen dute txosten honen xedea, neurri handiagoan edo txikiagoan. Izan daitezke hausnarketak edo proposamen zuzenak (indibidualak edo kolektiboak, saioan eginak edo beste bide batzuetatik helaraziak), detektatu diren arazoei eta beharrei buruzkoak, eragileen iritziz:

B.1. Ondorioak sortzen dituzte estrategian, TESTUAK ALDATU BEHARRIK GABE: hori gertatzearen arrazoia da ekarpena lerrokatuta dagoela ekintzarekin, eta haren inguruko konpromisoa loturik egongo da ekarpen hori kontuan hartzarekin ekintza hori egiterakoan, gutxienez abiapuntu gisa. Nahiz eta saioan egin den (aktetan kontsultatu daiteke), dokumentu honetan ere jasoko da.

B.2. Estrategian ondorioak sortzen dituzte, eta ALDAKETAK EGITEN DITUZTE TESTUAN. Adieraziko da zer puntutan eta zertan egingo diren aldaketok.

B.3. Ez dute eraginik estrategian, ez baitira bidezkoak departamentuaren ikuspuntutik. Arrazoitu egingo da.

-C. Estrategiaren eskumen esparruarekin zerikusirik ez duten ekarpenak. Ezin dute izan ondoriorik. Adierazi egingo da.

Oro har, oso balioespen positiboa egin da prozesuari buruz, eta eskertzekoak dira parte hartu duten pertsona guztien ekarpenak; izan ere, zalantzarik gabe, lagungarriak izan dira departamentuaren pertzepzioa aberasteko eragileen ikuspegari, egoerari eta ixaropenei buruz. Oso modu positiboan egin dira ekarpen guztiak –partikular batek bidalitakoak izan ezik–, eta, horien arabera, ondo jaso da proposamena alderdi nagusiei dagokienez (energia eredu, helburuak, ekintzak, gobernantza eredu...). Pentsatzekoa denez, eraikuntza esparru horretan izan dira



ahots kritikoak ere alderdi jakin batzuetan, eta hori guztia eskertzekoa da estrategiak abiapuntuan ondoen asmatu dituen ekintzak indartzeko eta nabarmentzeko, eta, besteak beste, egokiro konpondu gabeko jarduera eta baliabide hutsuneak zuzendu eta hobetu ahal izateko.

Bestalde, nahiz eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak baduen ohiko harremana interesdun gehienekin, neurri handiagoan edo txikiagoan; azpimarratzekoa da foru taldea eragile horiekin elkartzeak, eta eragileak beraien artean elkartzeak, izaniko ondorio positiboa, guztiak batera aritu baitira hurrengo aldirako aurreikusitako ekintzaren ikuspegi orokor baten inguruan. Hausnarketa orokor partekatua lortzeaz gainera, eragile bakoitzarentzat interesgarrienak diren gaiak lokalizatu dira, haiekin elkarlanean aritzeko ekintzen garapenean eta estrategiaren betetze mailaren jarraipena egiten.

Jarraian, ekarpenen azterketa eta balorazio teknikoa egiten da. Gogorarazten da saio bakoitzean parte hartu duten eragile talde bakoitzarentzat interesgarrientzat jo diren gaiak jorratu direla. Ahots guztiak ahalik eta integratuen eta grafikoan jaso nahi izan ditugu, parte hartzaileek bidalitako aktetatik eta dokumentu idatzietatik laburbilduta, eta emandako interpretazioarekin asmatu dugulakoan gaude. Helburua da, halaber, interesa duten eragileek, beren zatia kontsultatzeaz gainera, prozesuak eta proposamenak parte hartzaile guztiengan sortu duten iritziazen ideia orokor bat egin ahal izatea.

Horrenbestez, parte hartzen duten eragileen eskura dago, etorkizunean edozein argibide emateko.

1.2.- EKARPENEN ANALISIA ETA BALIOESPENA, SAIOEN ETA ERAGILEEN ARABERA

Jarraian, izaniko ekarpenak aztertzen eta balioesten dira, saioen eta eragileen arabera:

1.2.1.- INFORMAZIO SAIO OROKORRA

Eguna: 2021/04/28

Formatua: online (Zoom)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Parte hartzaile kopurua: 50 (23 emakume eta 24 gizon + 3)

Erakunde kopurua: 40

- Udalak
- Eskualdeko garapen ekonomikoko agentziak/mankomunitateak
- Landa garapeneko eskualde elkarteak
- Unibertsitatea
- Fundazioak
- Ingurumen elkarteak
- Energia enpresak
- Lanbide hezkuntza
- Nekazarien elkarteak
- Enpresak
- Partikularrak

Ekarpenen kopurua: 2

Ekarpenen analisisa

Bilera horretan, estrategiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazioari buruzko **galdera** bat egin zen, eta une hartan bertan argitu zen auzi hura (ikus akta). Ez da hartzen ekarpen gisa berez.

Ekarpen gisa proposatu zen estrategia zeharkako tresnatzat hartzea, **garapen jasangarriko helburuak** lortu ahal izateko, betiere 7. helburutik (energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea) eta 13. helburutik (ekintza jasangarria) harago joanez, eta proposatu zen, orobat, pobrezia kontrako borroka ere helburutzat hartzea. Ildo horretan, ulertzen da garapen jasangarriko lehen helburuari buruz ari dela (pobrezia amalera). Bilkuran argitu zenez, estrategia proposamenak aipatzen dituen helburuak bat datoz departamentuen eskumenekin. Departamentuak baditu pobrezia eta kalteberatasun energetikoaren behatoki bat eta gizarte eragileekin lankidetzan aritzeko ildoak (foru aldundikoak, udalekoak eta ez-instituzionalak); hala ere, pobrezia energetikoari dagokionez duen zuzeneko jarduna prebentziozkoa da (inoiz ez zuzentzailea), eta beti Ingurumen Departamentuari dagozkion tresnen eta baliabideen bidez gauzatzen du. Hain justu ere, gizarte eragileek ez diote heltzen pobrezia aurkako borrokari modu tematizatuan (energia, elikadura, hezkuntza, eta abar), baizik eta familien beharren ikuspegi globalago eta konbinatuz



baten arabera. Departamentuaren iritzian, ez du zentzurik berari ez dagozkion helburuak esleitzeak, eta proposamenak jada badu garapen jasangarriko helburuetarako ekarpen osaera zabala eta zeharkakoa. Horregatik, irizten diote ez dagoela efektuetarako tokirik estrategian.

Saiorearen ondoren, aurreko gaiak planteatu zituen pertsona berak (Macarena Larrea, Deustuko Unibertsitateko Energy Lab) zenbait galdera egin zituen estrategiaren edukari buruz, zeinak posta elektronikoz ebatzi baitziren. Zalantzak alderdi hauei buruzkoak izan ziren: trantsizio energetikoari buruz sentibiltzatzeako orduan herritar guztiengana iristeko modua, ibilgailu elektrikorako baterien fabrikazioarekin eta horiek jatorrizko herraldeetan dituzten gizarte eta ingurumen inpaktuarekin lotutako problematika, bero ponparen bideragarritasun ekonomikoa, bizitza ballagarriaren amaietan dauden bateriak eta eguzki panelak birziklatzea, biomasa eta inpaktuak, zerbitzuen sektoreko instalazio fotovoltaikoak, eta estrategia planteaturiko instalazio minieoliken potentzia.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.2.- INFORMAZIO ETA DELIBERAZIO SAIOAK BATZAR NAGUSIETAN

Departamentu Batzordean 2021/05/21ean egindako informazio bileraren ondoren, bost eztabaida saio egin ziren; hau da, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari eta duten talde politiko bakoitzeko bat:

ELKARREKIN GIPUZKOA TALDEA

Eguna: 2021/05/26 (11:00-12:00)

Formatua: aurrez aurreko

Parte hartzaile kopurua: 3 (emakume 1 eta 2 gizon)

Ekarpenen kopurua: 19

Ekarpenen analisisa

Elkarrekin Gipuzkoak uste du plan ona dela eta adierazi du bat datorrela egindako azterketarekin, baina, hainbat kezka azaltzeaz gainera, hainbat kontsulta eta ekarpen ere helarazi ditu (ikus akta). Azken horiei dagokienez:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

- Estrategia hiru urtean behin berrikustea, bost urtean behin berrikusi beharrean:

Estrategia bost urtean behin berrikustea planteatzen da, berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko, energia efizientzia hobetzeko eta azken kontsumoko berriztagarrien kuota handitzeko helburuak lortzera begira ohikoenak diren urteetan elkartzeko (2030, 2040 eta 2050, Europako, estatuko eta autonomia erkidegoetako klimari eta energiari buruzko araudi esparruetan ezarritakoak dira data horiek).

Bestalde, 2022, 2026 eta 2030ean dago aurreikusita GIPUZKOA KLIMA 2050 berrikustea (Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050). Energia estrategia honek 1. jomuga garatzea aurreikusten du, eta klimaren 9. jomuga du abiapuntu. Energia estrategia hau idazteak (2021ean onartzea aurreikusten da) funtsezko edukiak emango ditu GIPUZKOA KLIMA 2050 berrikusteari begira. Orobat, 2025ean eta 2030ean Energia Estrategia berrikusteak gauza bera egingo du 2026an eta 2030ean GIPUZKOA KLIMA 2050 berrikusteari dagokionez.

Nolanahi ere, aurreikusita daude urteko jarraipen txostenak (1.1.2 ekintza) eta beste azterlan eta diagnostiko batzuk (adibidez, urteko energia balantzea), eta horrek, GIPUZKOA KLIMA 2050en jarraipenarekin batera, ekintzan aldaketak sartzeko behar den arintasuna bermatzen du.

- Gipuzkoako eraldaketa industrialerako ekintzak:

Departamentuaren jarduna 1.2.3, 1.2.4 eta 1.4.2 ekintzetan eta 1.5 jarduera ildoan dago aurreikusita.

- Hau da, laguntzak udalerrri bakoitzera eta herritarrengana iristen direla ziurtatzea. EAEko eta Estatuko dirulaguntzen ildoekin koordinatzea.

Departamentuaren jarduna 1.2 jarduera ildoan eta 1.4.1 eta 1.4.4 ekintzetan dago aurreikusita.

- Eraikinak birgaitzea (bizitegi sektorea).

Departamentuaren ekintza 1.5 jarduera ildoan dago aurreikusita.

- Energia berriztagarrien aldeko apustua (fotovoltaikoa).



Energia berriztagarrien aldeko apustua honako atal hauetan garatzen da: B zatiko 7. atalean (*autokontsumorako eta autohornikuntzarako energia banatuaren potentziala eta inpaktu, Gipuzkoako iturri eta teknologia berriztagarrietatik abiatuta*), C zatiko 2. atalean (*energia eredu jasangarri baterako elementuak Gipuzkoan*), C zatiko 3.3 atalean (*2050erako hedapen hipotesiak*). Jarduera hori 1.2.3 ekintzan (*trantsizio energetikoa bizkortzeko proiektuak sustatzea*) eta 1.5 jarduera lerroan dago jasota (*energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzea hirigintzan eta erakuntzan*).

- Energiarako sarbidea demokratizatzea/sozializatzea.

Energiaren eskuragarritasuna demokratizatzea/sozializatzea proposamen estrukturala da estrategia proposamen osoan. Hasteko eta behin, garapen jasangarriko zappigarren helburuarekin duen lerrokatzearekin dago lotuta (energia eskuragarria eta ez-kutsagarria), baina baita ikuspegi metodologikoan (B zatiko 1. atala), proposatutako ereduak jasotakoarekin ere (C zatiko 2. atala, zeinaren arabera energia oinarriko ondasuna baita eta kontsumitzaile txikiak energiaren merkatuaren erdigunean ipini behar baitira). Orobat, badu loturarik garapen jasangarriko 2., 3. eta 4. helburuekin ere.

Lotura zuzenena duen departamentuaren ekintza 1.2 jarduera ildoan eta 1.4.1 eta 1.4.4 ekintzetan dago aurreikusita.

- Autokontsumorako kooperatibak/komunitateak:

Estrategiak energia sorkuntzari dagokionez proposatutako ereduak guztiz lerrokatuak dago Europako zuzentzararen «neguko paketearekin», eta, beraz, iturri berriztagarrietatik autokontsumorako energia banatua sortzearen alde egiten du. Hau da, ez da energia modu banatuan sortzea sare orokorrean isurtzeko eta merkatutzeko, baizik eta kontsumo puntu jakin baten energia beharrek zuzenean hornitzeko, hau da, eraikin baten beharretara begira (edozein sektoretakoa). Eredu berri horretan, energiak utzi egin behar dio espekulaziozko salmenta objektu izateari. Zehazkiago, estrategiak proposatzen duen fotovoltaikoaren ezarpen ereduak 368. orrialdean dago definituta (proiektuaren testu osoa), eta, Europako zuzentzararen arabera, eraikin kontsumitzailean bertan sortzen dituzten instalazioak ditu, ahal dela estalkian edo haren ingurune hurbilenean, lurzorua artifizializazioa areagotu gabe eta kontsumo propioko beharrek hornitzera begira (edo hurbileko kontsumitzaileekin partekatuzko, 500 m baino gutxiagora daudenak). Eredu horrek energia aurrezteak eta eraginkortasun handiagoa lortzen laguntzen du; izan ere, zenbat eta eraginkortasun handiagoa izan eraikina eta zenbat eta gutxiago kontsumitu, orduan



eta txikiagoak izango dira ezarri eta mantendu behar diren energia sortzeko instalazioak. Horrela, gainera, minimizatu egiten dira instalazio horien baliabide materialen beharrak.

Ezarpen eredu hori hainbat negozio eredutatik abiatuta egin daiteke, udalek eta Aldundiak teiatu publiko eta/edo pribatuetan bultzatutako energia komunitateak (finantzaketa publiko eta pribatuarekin), edo are auzo erkidegoek berek bultzatuta, finka administratzailean laguntzarekin edo halakorik gabe, eta abar. Erkidego horiek –eta horietan ipinitako sorkuntza instalazioak– jaso dezakete enpresa pribatuen laguntza beren kudeaketa beharretan (juridiko-administratiboak, osaera, baimenak eta lizentziak, instalazio eta/edo obra proiektua, merkaturatzea, zerga betebeharrak, ustiapena eta abar). Une honetan, mota guztietako hainbat enpresa merkatuan kokatzen ari dira komunitate horiek ondasun eta zerbitzu horiez guztiez hornitzeko. Bidezkoa da hori. Garrantzitsuena da negozio eredu horiek gardenak, partaidetzazkoak eta bidezkoak izatea –eta legezkoak izatea, noski– eta errendimenduen banaketa orekatua ziurtatzea, hau da, kontsumitzaile/prosumitzaile bakoitzaren ahultasun energetikoa minimoetara eramango duen merkataritza trukea. Hala egin ezean, zera lortuko litzateke: petrolioan oinarritutako eredu jasanezin batetik berriztagarrietan oinarritutako eredu jasanezin batera igarotzea. Hain zuzen ere, berme hori lortzeko, departamentu honek egin nahi duen ahalegina Gipuzkoako herritarren interes orokorra betetzera eta defendatzera bideraturik dago. Eta, horretarako, irizpideak, laguntza eta arbitrajea ezartzen ditu trantsizio prozesurako; hau da, energia bertikala eta zentralizatua sortzeko eredu batetik autokontsumo justu eta sozializatutako energia banatua sortzeko eredu batera igarotzeko. Horrexegatik idatzi da estrategia hau, oinarri dokumentu zabal gisa.

«Energia berriztagarrien komunitatea» (2018/2001 Zuzentaraua) eta «energiarako herritarren komunitateak» (944/2019 Zuzentaraua) izeneko figurak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ari dira. Nolanahi ere, Europako zuzentarau horiek entitate juridiko horretarako adierazten duten helburu nagusia zera da, ingurumen, ekonomia edo gizarte onurak ematea jarduten duten tokietako bazkideei edo kideei, finantza irabaziak eman orde.

- Estrategiaren aurrekontuak

Ekintza estrategiko oso zehatz batzuetan izan ezik (1.2.3, 1.2.4, 1.3.3), jakinik horiek garatzeko Europako laguntzetarako hautagaizten emaitzen zain daudela (Next Generation), strategiaren aurrekontua oso kontserbadorea da; hau da, departamentuak azken urteetan aurrekontu proiektuetan defendatzen dituen kredituetan oinarritzen da. Hori da 1. jarduera ildoaren kasua, eta, zehazki, 1.1.2 ekintzarena, zeinak 72.000 € baititu urtean (720.000 € hamar urteko aldirako, 2021-2030). Nolanahi ere, kontrakoa da, zenbateko urri samarra baita; izan ere, urte kopuru hori kontuan harturik, oinarritzko azterlan eta diagnostikoak baino ezin izango dira egin. Are gutxiago emango luke hiru urtean behin strategiaren berrikuspun bat egiteko, lehen proposatu den bezala.



1.4 jarduera ildoaren aurrekontuari dagokionez, kontsumitzaileen sektoreei zuzendutako jardunaldiak, ekitaldiak, tailerrak eta kanpainak funtsezkoak dira etxeetan eta jarduera ekonomikoetan energia kudeaketa jasangarria bultzatzeko. Are gehiago jakinik herritarrek bikaina egiten dietela. Ez litzateke irtenbidea izango etxei zuzendutako programa gabetzea (55.000 €/urte) jarduera ekonomikoan efizientzia edo eraikinen birgaitzea bultzatzeko—oso laguntza txikia—.

Elkarrekin Gipuzkoak adierazitako kezka partekatua da; hau da, proposamen osoaren aurrekontuak departamentuen urteko aurrekontuetan «kristalizatzeko» dira, baita udalerrietan eragin zuzena duten ildoetan ere. Edonola ere, komeniko litzateke hornidura handiago defendatzea gehien kezkatzen duten ekintzetarako, jarduera ekonomikoan efizientziarako, eraikinen birgaitzerako eta udalerrientzako laguntzetarako.

- Ibilgailu elektrikoa

Dokumentuaren hainbat zatitan dago jasota ibilgailu elektrikoa hedatzeko hipotesia (adibidez, 384. orrialdean). Izan ere, garrantzitsua da Gipuzkoan ibilgailu elektrikoa hedatzen laguntzeko neurriak definituko dituzten sakontze azterlanak eta planak egitea. Departamentuaren jarduna 1.1.2 eta 1.2.3 ekintzetan dago aurreikusita.

- Mugikortasuna

Estrategia honen garapen eremua GIPUZKOAKO KLIMA 2050 planeko lehen eta bederatzigarren helburuei dagokie (9.1.1 eta 9.1.4 ekintzak).

Mugikortasunaren eta garraioaren arloa—eta haien isuriak murriztea—ez dago departamentu honen eskumenen artean.

- Isurketak murrizteko helburuak eguneratzea.

Estrategiak bere helburuak eta beharrezko alderdi guztiak eguneratuko ditu, Europako, estatuko eta EAeko lege aginduen arabera; hala adierazten da 1.1.1. ekintzan:



- Zubietako erraustegia – 6. jomuga.

Estrategia honen garapen eremua GIPUZKOAKO KLIMA 2050 planeko lehen eta bederatzigarren helburuei dagokie (9.1.1 eta 9.1.4 ekintzak). Sei garren jomuga ez da garatzen dokumentu honetan jasotako ekintzaren bidez.

Eskertzeakoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

TALDE POPULARRA

Eguna: 2021/05/26 (12:00-13:00)

Formatua: aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 1 (gizon 1)

Ekarpenen kopurua: 1

Ekarpenen analisisa

Talde Popularraren ustez, oro har, dokumentu ona da.

Ekarpenei dagokienez, eta proposatutako ereduaren lehenengo elementua (energia oinarritzko ondasuna da, C zatiko 2.1 puntua) osatzen duen Berme Gutunarekin loturik—eskubideetan eta erantzukizunetan oinarritua—, Foru Aldundirako Berme Gutun bat zehaztea proposatzen da.

Talde Popularrak estrategiaren laburpen exekutiboa aipatu du, zeinean Bermeen Gutunak orrialde erdia bakarrik betetzen baitu, eta, beraz, egokia litzateke lehenik gutun horren eduki osoa estrategiaren testu osoan partekatzea (348. orrialdetik 351. orrialdera).

EH Bildu TALDEA

Eguna: 2021/05/26 (13:30-14:30)

Formatua: aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 2 (emakume 1 eta gizon 1)

Ekarpenen kopurua: 2



Ekarpenen analisia

EH Bildu batzarkide taldea ados dago egindako diagnostikoarekin eta estrategian proposatutako ereduarekin.

Ekarpen orokorrei dagokienez, erronkaren garrantzia eta adostasunak lortzeko beharra aipatu dituzte, batez ere udalekin, ezinbestekotzat jotzen baitute haien eginkizuna. Era berean, eta EH Bilduren taldeak Ingurumen Batzordean adierazi bezala, gai honen inguruko aurrekontua handitu egin beharke litzateke haien ustez.

Oso egokitzat jotzen dira egindako ekarpen orokorrak. Trantsizio energetikoan udalei –eta toki erakundeei– ematen zaien garrantzia estrategiaren proposamen osoaren zati estrukturala da.

Halaber, adierazi dute sakonago aztertuko dutela dokumentua eta ekarpen espezifikoagoak egingo dituztela.

EUSKO ABERTZALEAK-NACIONALISTAS VASCOS TALDEA

Eguna: 2021/05/26 (15:30-16:30)

Formatua: aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 2 (2 emakume)

Ekarpenen kopurua: 7 (saioan eta gero bidalitakoak)

Ekarpenen analisia

Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos batzarkide taldeak adierazi duenez, dokumentu ona iruditzen zaie; bat datoz proposatutako ereduarekin eta positibotzat jotzen dute guztion artean adostutako lana izatea.

Egindako bileren ondoren, ekarpen batzuk helarazi zituzten (Xabier Ezeizabarrena):

- 2018/1999 (EB) Erregelamendua, energiaren eta klimaren aldeko ekintzaren Batasunaren gobernantzari buruzkoa.



Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vasco taldeak adierazi du nahitaez aipatu behar dela erregelamendu hori.

Erregelamendu hori eta haren eduki nagusia berariaz jasota dago estrategia proiektuaren dokumentuaren 2.2.1 atalean (*Ekonomia deskarbonizatuari buruzko Europako araudia*), C.1 azpiatalean (testu osoko 59. orritik 61. orriraino).

- Energia estrategia bat dator GIPUZKOA KLIMA 2050ekin.

GIPUZKOA KLIMA 2050ean ezarritako gobernantza sistemari dagokionez, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vasco taldeak gogorarazi du beharrezkoa dela «Batzar Nagusietako departamentu batzordean klima eta energia politiken garapenari eta integrazioari buruzko bi urtez behingo txostenak aurkeztea», eta adierazi du komenigarria dela energia estrategia eduki horrekin bateratzea.

Ilido horretan, 5.1 atala (*Gipuzkoako energia gobernantza ereduaren osagaiak*), eta, zehazkiago, 5.1.1 G atala) bilduta dago konkordantzia horretan, baina baita beste mugarri batzuk ere:

«G. GIPUZKOA BATZAR NAGUSIETAKO DEPARTAMENTU BATZORDEA

GIPUZKOA KLIMA 2050ek ezarri duenez, Departamentu Batzordeak izango du informazioa eta kontuak emateko ardurua Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta klimaren zein energiaren alorreko txostenak aurkeztu beharke ditu bi urtetik behin.

*Horretaz gainera, Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren 2050erako Estrategiaren 1.1.1 ekintzan jasota geratzen denez, onetsi ondoren jarraitpena eta ebaluazioa egiteko eta kontuak emateko prozedura bat izango du, zeina Gipuzkoako Energiaren Behatokiak gauzatuko baitu (1.1.2 ekintza).
Prozesu horretan:*

- 1. Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Adierazleen koadroa hartuko da oinarri gisa.*
- 2. Jasangarritasun Energetikoaren urteko txostena egingo eta argitaratuko da.*
- 3. GIPUZKOA KLIMA 2050 estrategiako jarraipen eta ebaluazio erremintetan txertatuko ditu energiaren alorrean eginiko arintze eta egokitzapen aurrerapenak.*



Horrek esan nahi du departamentuak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, berariazko informazio mugarririk ezarriko dizkiola jasangarritasun energetikoaren arloan Batzar Nagusietako Departamentu Batzordeari, bai 1.7 jarduera lidoan jasotako jardunaren aurrerabideei dagokienez Foru Sektore Publikoan (eta Jasangarritasun Energetikoaren Foru Batzordearen ordezkari gisa), bai lurralde historikoan garatutako ekintza energetikoiei dagokienez, 1.1 eta 1.6 jarduera lidoan bildutakoekin loturik».

- Gizarte Politikako Departamentuarekin koordinatzeko neurriak.

Departamentuak lankidetzaz lidoak ditu Gizarte Politikako Departamentuarekin 2012tik (Gipuzkoako Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren inkesta), Gipuzkoako pobrezia eta kalteberatasun energetikoari buruzko azterlanak aldian-aldian egiteko eta eguneratzeko (ikus estrategiaren testua: B blokea, 6.2.1 atala; 172. or.). Horixe da Gipuzkoako Pobrezia Energetikoaren Behatokiaren oinarria, beste baliabide batzuekin batera (<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/energia/pobrezia-energetiko-behatokia>).

Gizarte Politikako Departamentuak ez du eskumenik gizarte larrialdietarako laguntzen arloan. Hori dela eta, Ingurumen Departamentua, Behatokiaren zerbitzuari eustez gainera, lankidetzan aritzen da udalekin eta gizarte eragileekin (Caritas, Gurutze Gorria, Golener, Ecodes...) bere eskumenei dagokien tresna eta baliabideen bidez (1.4 jarduera lidoa), zeinak prebentziozkoak baitira.

- Helburuak eta beste datu batzuk eguneratzea (EBko eta Estatuako esparrua).

Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz taldeak adierazi duenez, eguneratu egin behar dira helburuei buruzko zenbait datu (energia berriztagarriak, energiaren efizientzia) Europako azken lege proposamenak kontuan hartzeko, zeinak «neguko paketea» gainditzera baitatoz. Era berean, Estatuako esparrua osatzeko beste datu baliotsu batzuk ematen dira.

Hala eta guztiz ere, ekarpenen multzoaren irakurketatik ondorioztatzen da Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz taldeko ordezkariak estrategiaren testu laburrean oinarritzen dituztela beren oharra, eta ez dokumentu osoan (B zatia, 2. atala, *Gipuzkoako Energia Jasangarritasunaren Estrategia 2050 egitasmoaren esparru politiko eta arauemaiile orokorra*); beraz, falta direla dioten gaiak, neurri handi batean, presente daude.

Kontuan hartu behar da, bestalde, kontraste prozesu honen xede den estrategia proiektuaren dokumentua (hasierako onespun bertsioa) 2021eko martxokoa dela, baina testua gutxienez bi hilabete lehenago itxi zela. Energiaren eta klimaren arloko gaurkotatasun politikoa, izan araugintzarekin lotua, izan plangintza arlokoa—Europakoa, Estatuakoa eta Euskadikoa— oso aldakorra da une honetan, eta, horregatik,



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

eskertzeako dira ekarpen horiek guztiak, eta jaso ere jasotzen dira. Ekarpen horiek guztiak aintzat hartuko dira estrategia proiektuaren behin betiko testua lortzeko orduan, eta kontuan hartuko dira, orobat, haren inguruan sor daitezkeen beste berrikuntza batzuk ere. Ondorio horietarako, nagusiki, 2. atal hori (B zatia) eta 3. apartatua berrikusiko dira (helburuak, C zatia).

- Ekintza planari egingindako ekarpenak.

Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascoz taldeak proposatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak presente egon behar duela erakunde gisa Basque Energy Cluster Energiaren Klusterran, eta koordinatzeko mekanismoak izan behar dituela Eusko Jauriaritzarekin eta SPRiren Mugikortasun eta Logistika Klusterrarekin. Halaber, proposatzen du lankidetzaren bideak ezartzea Hidrogenoaren Sektorereko Foroan.

Departamentuak koordinatuta dihardu Energiaren Euskal Erakundearekin, eta lankidetzan dihardu zenbait ekintzatan ere. Hain justu ere, estrategiak aktiboki bultzatzen du EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea betetzea, eta ez sektore publikoaren aldetik soilik (foru eta udal sektorea).

Gainera, Departamentua *BH2C Hidrogenoaren Euskal Korridorearen (Hydrogen Corridor)* parte da, Europako *Next Generation* berreskuratze planari lotutako inbertsioekin.

Baina ekarpena askoz harago doa, eta irizten zaio oso interesgarria izan daitekeela, betiere ez bada estrategiaren helburu estrategikoen aurkakoa; izan ere, ikuspegi lokala du ardatz –mikroekonomikoa, kalekoa bertakoa– energiaren arazoari dagokionez, eta Gipuzkoako herritarren eskura ipini behar da proposatzen eta defendatzen duen eredu energetikoak tokiko aholkularitza, teknologia, hezkuntza, merkataritza, eta industria sareari eginiko sustapena; orobat, energia trantsizioak eredu jasangarri baterako bidea egin behar du, ingurumenari, gizarteari eta ekonomiarri dagokienez. Kontsumitzaila Europak duen merkatu energetikoaren erdigunean kokatze horrek zenbait erabaki eskatzen ditu (proiektuaren tamainari, negozio marjinen neurritasunari, ingurumen inpaktuaren kontrolari eta abarri buruzkoak), eta, ziurrenik, erabaki horiek ez dira ondo uztartzen energiaren geometria globaleko produktua nazioartekotzeari komeni zaien planteamendu industrialarekin, kluster handi horiek osatzen dituzten enpresak, normalean, horretara bideratzen baitira. Bestalde, orain arte ez da jaso halakoetan parte hartzeko gonbidapenik.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Horri dagokionez, hain zuzen ere, adierazi behar da Naturklima - Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioak, Renewable Energy Hub delakoaren bidez, industriarekin eta enpresarekin koordinatzeko eta sinergiak bilatzeko ardura duela, ekonomia zirkularraren arloan egiten ari den bezala. Huh horrek bultzatuko du, Naturkliman, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos taldeak proposatzen duen ekintza.

Azkenik, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos taldeak azpimarratu du beharrezkoa dela ekintza zeharkako bihurtzea eta beste foru departamentu batzuekin aritzea (Gizarte Politikak eta Ekonomiaren Sustapena). Egokitzat jotzen da erabat, bi sektoreei buruz lehen adierazitako zehaztapenekin.

Eskertzeakoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

EUSKAL SOZIALISTAK-SOCIALISTAS VASCOS TALDEA

Eguna: 2021/05/26 (16:30-17:30)

Formatua: aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 1 (emakume 1)

Ekarpenen kopurua: 1

Ekarpenen analisisia

Euskal Sozialisten taldeak eskertzekotzat jotzen du estrategia dokumentua prestatzeko adostasunak lortzeko borondatea, eta positiboa dela diote. Hori horrela, adierazi dute babesten jarraituko dutela elkarrekin lan egiteko ekimena.

1.2.3.- DELIBERAZIO SAIOA: GIPUZKOAKO ENERGIA JASANGARRIAREN ETA POBREZIA ENERGETIKOAREN LURRALDE MAHAIA

Eguna: 2021/05/12

Formatua: online (Zoom)



Parte hartzaile kopurua: 11 (emakume 7 eta 4 gizon)

Erakunde kopurua: 8

- Mahaikideak: Eskualdeko garapen ekonomikoko agentziak eta mankomunitateak.
- Eskualde eta udalerrietako garapen ekonomikoetako beste agentzia eta alor batzuk.

Ekarpenen kopurua: 47

Ekarpenen analisia:

Saioan bi dinamika aztertu ziren:

- 1.- Gipuzkoako Energia Jasangarriaren eta Pobrezia Energetikoaren Lurralde Mahaiaren eta eskualdeko garapen agentzien eta mankomunitateen eginkizunari dagokionez, eta eredu lortzeko dituzten zailtasunekin loturik.
- 2.- Eredua lortzeko proposatutako ekintzei dagokienez.

1. LURRALDE MAHAIAREN ETA GARAPEN AGENTZIEN ETA MANKOMUNITATEEN EGINKIZUNARI BURUZKO EKARPENAK (eta haien zailtasunak).

AGENTZIA/MANKOMUNITATEA	Lurralde Mahaiaren eginkizuna	Agentzien eginkizuna eta zailtasunak
DEBAGOIENA Mank.	<ul style="list-style-type: none">- Lehenetasunak ezartzea urteko jarduera lido estrategikoetan.- Estrategia betetzeko ekimenak diseinatzea.- Estrategiaren jarraipena/egikaritzea, eta estrategia eguneratzea.- Jardunbide egokiak partekatzea.- Teknikarrien gaitzuntza.	<p>Eginkizuna:</p> <ul style="list-style-type: none">- Eredua betetzen lagunduko duten jarduerak ezartzea.- Eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea.- Deskarbonizazioaren aldeko ekimenak babestea.- Ekintza eredugarriak abian jartzea.- Urteko planak garatzea. <p>Zailtasunak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Baliabide ekonomikoak.- Inplikaturako eragileen artean adostasunak lortzea.- Inbertsioetan lehenetasunak ezartzea (energia eredu agenda politikoan sartzea, eta, jarduera ekonomikoari dagokienez negoziarioaren muna ez bada ere, gai hori lehenetasunetan txertatu behar da, baliabideak bideratuz).
BETERRI-BURUNTZA	Bai dator Debagoienarekin.	<p>Eginkizuna:</p>



BIDASOA BIZIRIK:	Egokitzat jotzen da Lurralde Mahairen erregelamenduan jasotakoa, baina lantalde espezifikoko sortzea proposatzen da.	Eginkizuna: - Bidasoa-Txingudi eskualdean, 2021ean sinatu dute hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiarekin udal bakoitzak bere estrategia edo ekintza plana egin dezan, baina, era berean, egokitzat jotzen dute denen artean energia estrategia bateratua diseinatzea. Udalerri bakoitzeko energia plana nahiko garatuta dago. Zailtasunak: - Zaila iruditzen zaio interes komuneko proiektu bat aurkitzea eta adostasuna lortzea.
GOIEKI	Jarraitu beharreko filosofiak gainerako mahaietan bezalakoa izan beharko luke (parte hartzea, ikastea eta gaitzea, ikasitakoa eskualdean aplikatzeko).	Eginkizuna: - Orain arte Goiekik kanpoko baliabideekin kudeatzen zuen energiaren plangintza. Orain, baliabide propioekin kudeatuko da gaia. - Erraztailea, sentsibilizazioa pizteko eta ekimenak sustatzeko. Datorren astean bilera izango dute eskualdeko energia planaren gainean, eta une egokia izango da Lurralde Mahaiaren gaineko galdera hauek egiteko. Zailtasunak: Baliabideak: 18 udalerri dira eskualdean; horietatik 3 udalerri nagusiak dira, eta gainerakoak herri txikiak eta landatarrak; beraz, aurreikusten du alde handiak egon daitezkeela beharrik, lehentasunak eta denborak zehazteko orduan.
OARSOALDEA	Oro har, ados dago gainerako agentziek egindako ekarpenekin: Uste du Lurralde Mahai helburu estrategikoan arabera antolatatu beharko litzatekeela (beste modu batera antolatzea, helburuak bete ahal izateko eta ekintza eredugarriak erakusteko). Garrantzitsua da, halaber, beste eragile batzuegana iristea (herritarrek, enpresak, beste erakunde batzuk).	Eginkizuna: Aukera gehiago sortu behar dira eremu pribatuan (enpresa, herritarrek...) eragiteko eta sentsibilizazioa sustatzeko. Eredu bakarra eraiki beharko litzateke noia jokatu zehazteko. Zailtasunak: - Uste du zailtasunak berezkoak direla halako trantsizio eredu batean. - Barruan figura egonkor bat behar da. - Eskualdeko udalerriek hainbat



		beharrizan dituzte, eta udalerriek Lurralde Mahaiaren parte hartzeko aukera planteatu du. - Baliabide ekonomikorik eza azpimarratu du.
TOLOSALDEA GARATZEN	<p>- Azken urteotan, ezinbestekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako partekatzearen eta koordinatzearen funtzioa, hau da, esperientziak beste eskualde batzuekin partekatzeko gune izatea.</p> <p>- Eskualde bakoitzaren beharrak antzeman behar dira, eta behar horien arabera erantzun, hau da, ez da hitzarmen baten jarraitutasun hutsa, sortzen diren zailtasunei erantzun eraginkorra ematea baizik.</p> <p>- Gainera, eskualdeen artean partekatu daitezkeen ekimenak sustatu behar dira.</p> <p>- Beharrezkoa da, halaber, Europako laguntzari buruzko informazioa ematea eta eskualdeei eremu horretan laguntzea.</p>	<p>Eginkizuna: Eskualde batzuek eta besteek errealtate ezberdinak dituzte; Tolosaldean udalerri eta ezaugarri ezberdinak daude. Halaber, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategia egokitzea eskualdean, eta gero eta aktiboagoa izatea Aldundiaren eta udalen arteko zubi lana. Gure lana enpresetara eta herritarrengana iristea ere bada.</p> <p>Zailtasunak: Ekimen asko tokikoak direnez, tokian tokiko erantzuna eman behar zaie. Davidek esan duen bezala, gure agentziak desberdinak izanik, gaiari beste tratamendu bat ematen zaio. Zeharkakotasun falta ageri da. Erronka handia da udalerri guztien arteko koordinazioa eta guztien interesari erantzutea eta horiek uzartzea. Energia Departamentu baten beharra dago, eta horrek apustu politikoa izan behariko luke eta ez teknikari baten eskarira mugaturiko auzia.</p>
UGGASA	<p>- Bat dator aurrekoarekin.</p> <p>- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Mahaiari eskatu dilo eskualde dimentsiora jaisteko, eskualde bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko.</p> <p>- Bideratzaileak, dinamizatzaileak, sareak... Eskualde bakoitzaren beharrak ezagutzea eta beste eskualde batzuetako esperientzien berri ematea, lana errazteko.</p> <p>- Faltan sumatzen du informazio, sentsibilizazio eta prestakuntza estrategia edo plangintza bateratu bat izatea, herritar guziengana iristeko.</p>	<p>Eginkizuna eta zailtasunak: Eskerrak eman ditu informazio memoriagatik. Gakoa estrategia egingarri egitea da, erritmo desberdinak ageri baitira, ixaropen desberdinak, implikazio maila desberdinak... eta elkarreka horretan adostasunak aurkitzea erronka bat da.</p>
UROLA KOSTAKO ELKARTEA	<p>Eragile guztiak koordinatzeko sareko lana sustatzea, energiaren inguruko eragile ugari ditugulako eta lehentasunak ezartzea ezinbestekoa delako helburu bat bateratuz. Ezinbestekoa da proiektuak eta abar partekatzeko tresna izatea (adibidez, informazioari dagokionez).</p>	<p>Eginkizuna: Eredu energetikoa eta efizientzia sustatzea, bai herritarrekin, bai erakundeekin. Energia ereduak dibertsifikatzea. Proiektu esperimentalak bultzatzea (etorkizuneko erronkei erantzuteko).</p> <p>Zailtasunak: Udalerri eta errealtate desberdinak dituztenez, horiei guztiei erantzun egokia ematea da erronka nagusia.</p>
DONOSTIAKO SUSTAPENA	<p>Denbora gutxi izan dute dokumentua eta dinamika prestatzeko. Hala ere, datozen egunetan hobeto</p>	<p>Eginkizuna: Iturri berriztagarriak eta efizientzia sustatu behar dira.</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

garatuko dute erantzuna. Ezibestekotzat jotzen dute tresnak eta araudia garatzea, bai udaletan, bai enpresetan.	Zailtasunak: Baliabideak urriak dira. Guztion erantzukizuna da, eta guztion implikazioa eskatzen du, aldaketa mardula egin ahal izateko (herritarrek, enpresak, udalak...).
---	---

Gipuzkoako tokiko gobernantza energetikoan, Lurralde Mahaiak eta eskualdeko mahaiekin duen harremanak berebiziko garrantzia dute. Mahaien sistema hori sareko espaziotzat hartzen da, non lurralde eta toki eragileek jasangarritasun energetikoari buruzko gaiak hausnartu, kontsultatu eta hitzartzen ditugun, mahai propioetatik eta haien aldirikako bileretatik haratago doan lankidetzaren eremu batean ondorioak izan ditzan; hala, estrategia jasotako ekintza guztiarekin lotu behar du, esparru komun gisa ulertuta. Departamentuak, agentziek/mankomunitateek eta eskualdeetako/udaletako eragileek garapen osorako baliabideak jarri behar dituzte. Departamentuak eskualdeko eta tokiko eragileekin lankidetzaren sustatu behar du sor daitezkeen proiektuetan, baina alde zuritik adostuta bakoitzaren zeregina eta espazioa zehazki izango den, eta eskualde bakoitzaren errealitate egokituuta; horrek ekarriko du, halaber, udalerrietako errealitate eta erritmo desberdinak kontuan hartzea eta beste eragile talde batzuk inplikatzea.

Dela 1.2.2 ekintzaren fitxak (*energia jasangarriaren eta pobrezia energetikoaren mahaia bultzatzea eta foru eta eskualde estrategiak koordinatzea*), dela mahaiaren antolaketa eta funtzionamendurako erregelamenduak berak idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiak ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, uste da ez dela beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa hobetzeko beharrezkoa da kontuan hartzea ibilbide horretan, gutxienez abiapuntu gisa.

Beste horrenbeste gertatzen da 1.2.1 ekintza fitxarekin ere (*Energiaren plangintza eta kudeaketa babestea herri eta eskualdeetan*). Kasu honetan, konpromisoarekin batera, kontuan hartuko dira estrategiak definitutako energia eredurako trantsizioan eskualdeko garapen ekonomikoko agentzien/mankomunitateen eginkizunari eta zailtasunei dagokienez adierazitako ideiak ere, abiapuntu gisa behintzat.

2.- PROPOSATURIKO EKINTZEN GAINEKO EKARPENAK

AGENTZIA/MANKOMUNITATEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.3 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA	1.5 JARDUERA ILDOA
DEBAGOIENA	1.2.1	1.3.1	1.4.1	1.5.1



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

<p>- Teknikariak trebatzeko plana diseinatzea. - e-Mugi aplikazioaren funtzionalitateen ezagutza erraztea. 1.2.2 Dinamizazio operatiiboaren garrantzia (aholkularitza teknikoak). 1.2.3 - Ekosistema industrialeko eragileen identifikazioa, ezagutza eta berrikuntza (dauden egiturak eta dinamikak aprobetxatzea). - Soluzio berritzaileen laborategi bat sortzea, prototipoak martxan jartzeko. - Informatzea eta formatuak ematea (Green Deal, Next Plan, Larraldi Klimatika, Gizarte Neutro...) funts horiek nola bideratu eta proiektu proposamenak nola egin jakiteko (partzuergoak bultzatzea, eragileen artean proiektuak sustatuz). 1.2.4 - Gehiegizko beroa non sortzen den identifikatzea. - Enpresen inbertsio gaitasuna sustatzeko dirulaguntzak proiektuen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko.</p>	<p>- Teknologia berriekiko mesfidantza desagertzeko sentibiltasunak (instalazioak bisitatzea) eta erakustaldi proiektuak. - Teknologia horiek ikertzeko eta garatzeko bekak sortzea. 1.3.2 - I+G+Ba sustatzea, kanpoko materialekiko eta erreparatzaileekiko mendekotasuna murrizteko. - Sor daitezkeen negozio eredu berriei laguntzea. 1.3.3 Energia enpresa handiek har ditzaketan bideen jarraipena egitea. - Hidrogenoa (pilak) aprobetxatzeko formulak aztertzea –ez ekoizpeneakoak bakarrik–, kontsumora iritsi arte.</p>	<p>Sentibiltasun tresna integratu bat sortzea, adibidez Energia Argitu webgunean: agenda, tutoretza bideoak, informazio erabilgarriko gida.</p>	<p>Leihatila bakarreko bulego ibilariak irekitzea (adibidez, OpenGela Otxarkoaga eta Eibar). 1.5.2 e-Mugi aplikazioa, jasangarritasun planen kudeaketa eta jarraipena errazteko. 1.5.3 Sor kuntza kontsumora egokitzen den aztertzea eta Jaurritzak laguntzak ematea bero instalazioak etxebizitza parkearen elektrifikaziora egokitzeko.</p>
---	--	---	---



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

TOLOSALDEA GARATZEN	<p>1.2.2</p> <p>Beharrezkoa da eskualdeetan partekatutako ekimenak detektatzea eta horiei erantzuna ematea. Arestian aipatutakoari dagokionez, sortzen hasi diren energia bulego birtualei erantzutea, zenbait eskualdetan interesa piztu baitute.</p>	<p>1.4.1</p> <p>ildo horretan, 1.4 jardueran (ikastetxeak, etxeak...), interesgarria litzateke aztertzea partekatutako webgune bat onlineko bulego batekin lotuta egon daitekeen (eskualdeko bakarra izan behar duen...), informazioa emateko eta feedbacka emateko izan behar den...</p> <p>Azken batean, ez dago tresnarik herritarren ekarpenak, zalantzak eta bestelakoak biltzeko, bideratzeko eta aholkatzeko. Iruditzen zaio ez dela nahikoa ARGITU programarekin.</p> <p>1.4.4</p> <p>Fiskalitatea: urteak daramatzate udalen egoerari buruzko azterketak egiten eskualdean, baina ez Gipuzkoari buruzkoa oro har, eta lurralde mailako egoeraren argazkia ere atera behariko litzateke. Udalei begira, ezinbestekoa litzateke ordenantza ereduak prestatzea, hobariak eta abar batera lantzeko eta garapen agentziak egiten laguntzeko.</p>	
---------------------	--	--	--

Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin



lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa. Aurreratu dutenez, baitteke horietako bat departamentuaren eskumenetan ez geratzea, baina beste eragile batzuei neurri proaktiboak hartzeko aukera aztertuko da.

1.4.1 Ildoari dagokionez (energia bulegoak eta herritarren informaziorako eta aholkularitzarako beste baliabide batzuk), zenbait azalpen egin ziren deliberazio saio honetan; hala ere, eta gai horretan eskualde/udal mailako esperientzia berriak egonik (Oartzualdea, Irun), eta mahaikideen interesaren berri izanik, gogora ekarri zen lurraldeko mahaiak saio monografiko bat egiteko asmoa zuela, orain arte COVID-19ak atzeratu badu ere. Bilkura ekainaren 18an egin zen.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.4.- DELIBERAZIO SAIOA: DEBABARRENA

Eguna: 2021/05/17

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 6 (5 emakume eta gizon 1)

Erakunde kopurua: 6

- Udalak eta auzoetako udalak: Mendaro, Eibar, Deba, Itziar
- DEBEGESA garapen ekonomikoko eskualde agentzia
- DEBEMEN landa garapeneko elkarte

Ekarpenen kopurua: 32

Ekarpenen analisia

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA	1.5 JARDUERA ILDOA
DEBEMEN	1.2.1 eta 1.2.2 Landa eremuko elkartea izanik, prest agertu dira estrategiaren barruan ekarpenak egiteko, baina agian eskertuko lukete	1.4.1 eta 1.4.2 - Landa eremua lehen sektorearekin lotzen da, baina askoz ere zabalagoa da, biztanleria ere badago eta. Beraz, horrelako ekintzetan, landa	1.5.1 Adierazi du ekintza guztiak lotuta daudela. Gaineratu duenez, eraikinak birgaitzeaz ari bagara, kontuan hartu behar da eraikin guztiak tipologia



	<p>Aldundiak egiten dituen hitzarmen edo lankidetzak horietan landa garapenerako elkarteak sartzea.</p>	<p>eremuko biztanleentzako sarbide zuzenago izan behariko litzateke zerbitzuak ematerakoan.</p> <p>1.4.4 - Fiskalitatean ekintzak bultzatzeko hobariak beti laguntzen dute, eta hobariak lehenetsi behariko lirateke eta ez zigorrak, gizarte arrakala areagotu ez dadin. - Dirulaguntzak edo hobari fiskalak ezartzerakoan, kontuan hartu behariko lirateke landa eraikinen ezaugarri espezifikoak.</p>	<p>desberdinekoak direla eta ez direla berdinak landa eremu baten ezaugarriak eta etxebizitza eraikinenak.</p>
<p>DEBEGESA</p>	<p>1.2.1 - Hitzarmena ez horrenbeste, baina koordinazio lanaren falta sumatzen du. - Landa garapenerako agentziek lan ildo bat zehaztu eta artikulatu behar dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, edo energia mahaien bidez, eta, hortik, eskualdeko ekintza planaren esparruko eskaerak helarazi behar dituzte. - Badaude tresna administratiiboak, baina energiaren arloan aholkularitza teknikoa emateko tresna espezifikoak falta dira; udalen premiak ari dira iristen agentziara. - Nabarmendu duenez Debemenek Debabarreneko energia estrategiaren berrikuspenean parte hartu zuen eta gaineratu zituzten haren ekarpenak.</p> <p>1.2.2 - Adierazi du eskualdeko energia mahaien zeregina zehaztu behar dela. - Eskualdeko mahaiak, orain, udalei 4/2019 Legea betetzen laguntzera bideratuta dago. - Debemeni laguntza ematea eskaintzen du, nahiz eta eskualdeko energia mahaiak ez egon.</p>	<p>1.4.1 eta 1.4.2 - Sentsibilizatzea edo oinarritzko ezagutza ematea gauza bat da eta beste bat, berriz, ekintza gauzatzea ahalbidetzen duen tresnak izatea. Hau da, gauza bat sentsibilizatzea da, eta beste bat ekintza sustatzea. Udalak babes ona dira ekintza sustatzeko (adibidez: etxebizitza birgaitzeko informazioa). Hirigintzako birgaitze bulegoak (eskualde askotan daude) eragile aktibotzat jo behariko lirateke. Halaber, oso garrantzitsua da fiskalitateak eraikinen efizientzia saritzea; hau da, udalek eta Foru Aldundiak etxebizitza horien efizientzia hobetzeko hobariak edo zerga arintzeak izatea. - Gerta daitekeen kontsulta bakoitzerako aholkularitza espezializatua ematea da zailena (ez baita gauza bera biomasaari buruzko kontsulta bat, energia fotovoltaikoari buruzkoa, ur jauzi baten ingurukoa...), teknologiaren arabera eta ekintzari lotuta.</p> <p>1.4.4 - Halaber, oso garrantzitsua da fiskalitateak eraikinen efizientzia saritzea; hau da, udalek eta Aldundiak etxebizitza horien efizientzia hobetzeko hobariak edo zerga arintzeak izatea.</p>	<p>1.5.1 Ados dago Eibarrekin. Erabilgarria izango litzateke telefono espezializatu bat izatea (ez informazio partziala), horrelako zalantzak dituzten pertsona guztiek bertara jo ahal izateko. Gaineratu duenez, eskualdea hori artikulatzen salatzen ari da, baina ez daki gutxieneko masa kritikoa izango lukeen maila horretan eutsi ahal izateko.</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

MENDARO	1.2.1 - Mendaroko Udala txikia da eta, baliabide gutxi dituztenek bezala, laguntza behar dute; beraz, ondo etorriko zale edozein ekarpen.	- Udal fiskaltate osoaren azterketa egin zuten, energia berriztagarrien inguruan; hiru zerga tipologia daude udaletan. 1.4.1 Kampainak garrantzitsuak dira, baina, duten esperientziagatik, herritarrengana irista da erronka. Faktura ulertzeko ahalaginen bat antolatuta denean jende gutxi parte hartu duela azaldu du. 1.4.4 Mendaron ez da hori baloratu, dirulaguntzak ematea zerga onurak baino errazagoa izan baita.	1.5.1 - Informazioa beharko lukete, gero gomendio tekniko horiek zabaldu ahal izateko. - Oraingoz ez dute hirigintza plangintza orokorra aldatzeko asmorik, baina kontuan hartuko dute.
EIBAR	1.2.1 Uste du landa garapenerako agentziek lotura rola izan dezaketela biomasarren baliabideari dagokionez, zeina neurri handi batean esku pribatuetan baitago.	1.4.1 eta 1.4.2 - Ingeniaritzako eta arkitekturako elkargo profesionalak lehen lerroan daude herritarrek ingurutzaille terminoan erreformei buruz erantzuteko, bai eta energiaren efizientziako proiektuekin bat egiteari eta abarri dagokienez egingdako eskaerei erantzuteko ere. - Nabarmentzekoa da EHUK Eibarren duen Energia Berriztagarrietako Ingeniaritza Gradua. 1.4.4 Eibarren badira dirulaguntzak, baina ez daki ondasun higiezinaren gaineko zergaren aplikazioan hobaria aplikatzen zuten fatxada eraberrituak dituzten etxebizitzei; landu beharreko lido bat litzateke.	1.5.1 Ingeniaritza edo arkitektura elkargoek gomendatu beharko liekete udalei sail teknikoari, argiago transmititu ahal izateko erreforma horien zer alderdik eman dezaketean etekin handiagoa kontsumoa ez ezik CO ₂ isurriak ere murrizteari begira.
DEBA	1.2.1 Zailtasunak ageri dira herri txikitetan horrelako jarduerekin hasteko, baliabide guztiak (teknikoak, ekonomikoak...) ongi etorriak izango dira.	1.4.1 - Debaren kasuan, jende gutxi eman du izena Argitu programa antolatuta duten bakoitzean. Interesa areagotzea espero du. 1.4.4 Gai hori Deban dago geldirik.	1.5.1 Esan du ados dagoela ekintza hori kontuan hartzarekin hirigintza plangintza berrikusterakoan, hasieratik arautu baitaiteke zer urrats egin. Arau subsidiarioak berrikusteko daude. Hiri antolamenduko plan orokorra idatzeko orduan, kontuan hartuko dute.
ITZUAR (Debako)	1.2.1		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

auzoa)	- Adierazi du berarek ere ez direla udala, auzo udala baizik; eta, beraz, oraindik baliabide gutxiago dituztela.		
--------	--	--	--

Aktan kontsulta daitezke saioan egindako azalpenak. Besteak beste, bertaraturakoen kezka nagusiak ulertzeko interes handiena dutenak nabarmentzen dira:

- 1.2 jarduera lidoaren egitura eta oinarriak, eskualdeei eta udalerriei laguntzekoak, eta eskualdeko garapen ekonomikorako agentzien bidez ezarritako koordinazioarenak.
- Eskualdeko mahai bakarra egotea –efizienteago izateko– eta mahai horretan eragile guztien eta sektore kontsumitzaile guztien ikuspegiak eta beharrak bateratzeko eta integratzeko beharra.
- Sektore guztietako eskualde ekonomia elkarrekin lantzea da egokiena, batez ere energiaren arloan; izan ere, landa inguruneak ere lehiakorra izan behar du energiaren erabileran, eta/edo baliabide hornitzaile izan baitaiteke eta/edo inpaktuak jaso baititzake.
- Iraganean izandako ekimenak, sektoreko eskumena duen Landa Garapenerako Zerbitzuarekin lankidetzan, lehen sektorean jasangarritasun energetikoa sustatzera bideratuak (basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza eta elikagaien industria); interesgarria da departamentu eskudunak ekimen hori berreskuratzea.
- Administrazioaren rol orientatzaile eta bultzatzailea, baina betiere energia arloko ondasun eta zerbitzuen hornitzaile den tokiko sare ekonomikoaren, elkargo profesionalen, ikasketa zentroen eta abarren konplizitatea eta aktibazioa bilatuz.
- Beste hainbat.

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Landa garapeneko agentziak estrategian integratzeari dagokionez, eskualde mailan landa ingurunearen interesak ordezkatzeko eragileak diren aldetik, egoki bideratutzat jotzen da 1.2.1 eta 1.2.2 ekintzen bidez, eskualdeko mahai energetikoan duen inplikazioari, eskualdeko jasangarritasun energetikoaren arloko plangintzari eta gai horrekin loturiko jarduketara orokorragoari dagokienez –betiere eskualdeko garapen ekonomikoko agentziarekin koordinatuta–. Beste horrenbeste 1.4.2 ekintzarekin loturik ere (*Energia kudeaketa jarduera ekonomikoetan*):



erakinak, instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko laguntza tresnak eta pizgarriak), zeinean adierazita baitago departamentu eta eragile eskudunen inplikazioa jardura sektore batzuetan eta besteetan. Gainera, estrategiaren beste ekintza batzuetan ere txertatuta daude landa eremuko behar espezifikoak, beste gai batzuei dagokienez (informazioa, etxetako aholkularitza, fiskalitatea, eta abar).

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.5.- DELIBERAZIO SAIOA: OARSOALDEA

Eguna: 2021/05/19

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 5 (emakume 2 eta 3 gizon)

Erakunde kopurua: 4

- Udalak: Oartzun, Lezo, Pasaia

-OARSOALDEA eskualdeko garapen ekonomikorako agentzia

Ekarpenen kopurua: 14 (7 saioan + 7 ondoren, Errenteriako Udalak bidailita)

Ekarpenen analisisa:

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA	1.5 JARDUERA ILDOA
OARSOALDEA	1.2.1 - Ados dago ekintzaren helburuarekin. Garrantzitsua da tresna egokiak garatzea agentziekin batera, lankidetzaz esparru baten barruan. Aurtun, hausnarketa prozesu bat egingo da eskualdeetan, datozen urteetarako plangintza energetikoa definitu ahal izateko. Bestalde, adierazi du agentziak eta udalak eroso sentitzen direla eskualdeko mahai energetikoan. Agentzia gisa, eragile bideratzaileak dira, eta adostasunak lortzen dituzte proiektuak gauzatzeko. - Garapen agentziaren helburua energiari buruzko		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	<p>ezagutza nahikorik ez duten enpresei ere aholku ematea da (batez ere enpresa txikiekin gertatzen da hori).</p> <p>- Oarsoaldeak energiaren alorreko aurreko diagnostikoa eta plana egin zituenean, planteamendua batez ere enpresa handietan oinarritu zen (Papresa da Oiarzualdeko enpresarik handiena eta aurreko planteamendu horren zain geratu zen). Era berean, Oarsoaldea Energiaren Euskal Erakundearekin eta antzeko enpresekin harremanetan dago, enpresa txikiak ere bat egin dezaten trantsizio energetikoarekin. Une honetan, agentzian enpresa txikietan zentratzea gustatuko litzaieke, gutxieneko diagnostiko bat izan dezaten eta eredu berrietan lan egin dezaten. Halaber, aipatu du enpresak energiaren arloan hainbat jarduera egiten hasi direla (hasitakoan artean, argi ohikoan tokiak LED argiak ipintzea, eta pixkanaka fotovoltaikoak ezartzen eta makineria efizienteagoa jartzten ari dira negozioetan), berak eskualdeko enpresetara bisita ugari egiten dituelako eta enpresetako eragileek esan diotelako onurak ikusten ari direla (aurrezkiak, eta abar).</p> <p>- Oarsoaldeak uste du energia lantzeko esparru egokia dela eta hainbat proiektu garatzeko aukera dagoela.</p>		
OIA RTZUN	<p>Oiarzunen hainbat proiektu dituzte martxan: 50/50 ikastetxeetan, eraikinen efizientzia hobetzera bideratutako proiektuak, mugikortasun jasangarriko plana, eta abar. Estrategiaren azalpenean ez du ikusi asmo handiko proiekturik industriari dagokionez. Eskualdean industriaalde asko daude eta Oiarzunen, adibidez, logistika enpresa ugari. Ez daki ekimen edo proiektu zehatzak egingo diren strategiaren esparruan, edo agian hori Oarsoaldea garapen agentziak sustatu beharreko jarduketara lido bat izan daitekeen. Alde horretatik, aipatu du Oarsoaldea garapen agentziak</p>	<p>Oro har, badirudi dena energia berriztagarriekin lotzen dela, eta energia murritzeta bultzatu beharke genuke benetan. Fiskalitatearen gaian, adibidez, hobariak murrizketarekin zerikusia duten inbertsioetara bideratu beharke lirateke, eta ez energia iturri ez-berriztagarrietatik iturri berriztagarrietara egin beharreko jauzira soilik; esaterako, instalazio berriztagarri bat ezarritz (kasu batzuetan energia berriztagarriek ingurumen inpaktuak ere eragin baititzaizkete). Bere ustez,</p>	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	industria eremuarekin lotutako azterlan bat egin zuela.	energia hierarkia murrizteak izan beharuko luke lehenbizikoa urratsa, estrategia jasotzen den bezala, baita kudeaketarekin loturiko auzietan ere. Hori oinarritzkoa iruditzen zaio, eta printzipio hori behin eta berriz bultzatu beharuko lukeela administrazio publikoak.	
LEZO	Gutxi gorabehera Oiarzungo arazo berberak dituzte. Lezoren kasuan, jarduera industrial gehienak logistikan eta garraioan oinarritzen dira.		
ERRETERIA (Ez zen bilkurara joan eta ondoren bidali zuen)	<p>1.2.1</p> <p>- Lankidetzeta hitzarmen horiek egonkorrak izan beharuko lukete, lanpostu prekarioak sortzen dira, eta 2030erako eta 2050erako helburuak garatzeko egitura jasangarriak behar dira, bai eskualdeetan, bai udalerrietan.</p> <p>- Udaletan energia plangintzako arduradunak sortu behariko lirateke, eta udalerrri ertain/handietan bakarrik bideratu behariko lirateke horretarako ahalaginak.</p> <p>Udalerrri txikien kasuan, eskualde figurak garrantzi handiagoa du, baina, hala ere, oso figura garrantzitsuak dira udalerrri handiagoen lankidetzarako.</p> <p>1.2.4</p> <p>Erretereriak PAPRESAko beroa aprobetxatzeko aukera du. Eskertzeak litzateke Gipuzkoako Foru Aldundiaran lankidetzeta eta laguntza zuzena horrelako proiektuak bideratu ahal izateko.</p>	<p>1.4.1</p> <p>- Oso interesgarria zen Lanbide Heziketako erakusketa Ibililaria, haren falta sumatzen dugu. Horrelako bideak landu behariko lirateke, baita aldaketak planteatu ere, beti berdina ez izateko.</p> <p>- Fotovoltaikoen autokontsumoa bultzatzeko, herritarrengana ere iritsi behar da instalazioak egiteko, bai komunitate energetiko gisa, bai banaka.</p> <p>1.4.4</p> <p>- Oso positiboa iruditzen zaio eta erreferentziak ematen ditu.</p> <p>- Egokia litzateke gaia foru arauen bidez ere garatzea.</p>	<p>1.5.1</p> <p>Egokia da gomendioen gida hau egitea, baina egokia litzateke arau proposamenak egitea ere. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzeta sustatzea</p> <p>4/2019 Legeak arautzen ez dituen alderdiak izapidetzeko (zenbait artikulua aipatzen ditu).</p> <p>1.5.2</p> <p>4/2019 Legeak dio jasangarritasun energetikoari buruzko azterlanen irismena landu behar dela, baina, une honetan informatzen ari garen plangintza dokumentu estrukturaletan ez dugu irizpiderik definitzeko aukerarik.</p> <p>1.5.3</p> <p>Next Generation laguntzak modu orekatu eta egokian bultzatzeko irizpideak zehaztea.</p>

Aktan kontsulta daitezke saioan egindako azalpenak. Bestiak beste, bertaraturakoen kezka nagusiak ulertzeko interes handiena dutenak nabarmentzen dira:

- Industria sektorerara bideratutako estrategiako ekintzen kokapena (batez ere, 1.2.3, 1.2.4, 1.3.3, 1.4.2, 1.5.1, 1.5.3, beste sektore batzuekin batera).
- Asmo handiko proiektu zehatzen etorkizuneko garapenei lotutako estrategiako ekintzen kokapena (batez ere, 1.2.3, 1.2.4, 1.3.3, 1.5.3).
- Estrategia zertaz ari den zehaztea, energia proiektuei lotutako balizko «partzuergoak» aipatzen dituenean. *District heating* baten adibidea jarri da hondar bero industrialia aprobetxatzeko, udalerrri jakin batean auzoak, ikastetxeak, kirol ekipamenduak eta abar girotzeko.



- Energia komunitateak (kooperatibak edo elkarteak). Usurbilgo Lanbide Eskolan maiatzaren 28an gai horri buruz antolatutako jardunaldiaren berri eman da.

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.6.- DELIBERAZIO SAIOA: DEBAGOIENA

Eguna: 2021/05/21

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 10 (emakume 6 eta 4 gizon)

Erakunde kopurua: 9

- Udalak: Arrasate, Bergara
- DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA
- Hiria birgaitzeko enpresa publikoa SURADESA (Debagoieneko Mankomunitatea)
- Landa garapeneko eskualde elkarteak: DEBAGOIENA
- Enpresa elkarteak: H-Enea Living Lab-ACEDe,
- Energia enpresak: Goiener, Unago Energia Berriztagarriak
- Beste erakunde batzuk: Debagoiena 2030

Ekarpenen kopurua: 18

Ekarpenen analisia:

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA	1.5 JARDUERA ILDOA
ARRASATE	1.2.1 eta 1.2.2 - Irizten dionez, plantatzen diren bi ildo horiek egokiak dira eta hala frogatzen du orain arteko ibilbideak.	1.4.4 Hobariak plantatzerakoan, altxortegiak eta kontu-hartzailetzak oztopoak jar ditzakete, fiskaltatea baita udalaren diru	1.5.1 eta 1.5.3 Birgaitzeari dagokionez, azken erabiltzaileak egingo ditu ekintzak, eta askotan zailtasunak izaten dira hori egiteko. Zaila da azken erabiltzaile horien gana (herritarrengana)



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	1.2.3 eta 1.2.4 Ekimenak zabalitzeko beharra, haien errepikagarritasunari begira.	sarrerren iturri bat.	laguntzarekin iristea.
DEBAGOIENA 2030	1.2.1 Logikoa da lido horretan aipatzen dena: eragile publikoek bultzatu behar dute hori. 1.2.3 eta 1.2.4 - Nabarmendu du modu asko daudela komunitatean energia berriztagarriak ezartzeko. - Egindako ekimenei buruzko erreferentziak eman ditu.		
SURADESA			<ul style="list-style-type: none">- Egokia iruditzen zaio Eusko Jauriaritza kontuan hartzeko planteamendua. Etxebizitzari eta lurralde antolamenduari dagokienez, haiek markatzen dute lerroa. lido horretan, pentsatzekoa da beste agindu bat aterako dela, eta bertan jasoko direla energia efizientziaren eta abarren arloko erronka horiek, eta uste du aldaketa garrantzitsua datorrela, bai dirulaguntzei dagokienez, bai sartzen diren kontzeptuei dagokienez. - Birgaitzearen eta estetikaren arteko irizpide talkari buruz esandakoari dagokionez, gaineratu du auzotarren lehen erantzukizuna irisgarritasuna dela, eta, beraz, hori konponduta, birgaitzeari ekin zaiola. Eusko Jauriaritzak badu dirulaguntza bat, bi lerroak uztartzen dituen.- Auto elektrikoa aipatzen denean, hirigintzarekin loturarik ez duela ikusten du.- Repsolen akordioari helduz, nabarmendu nahi izan du Eusko Jauriaritzako zuzendaritza bat Open Aretolan lan egiten ari dela auzoen birgaitze orokorrari begira; adierazi duenez, eraikuntzaz eta hirigintzaz gainera, birgaitzearen alderdi soziala ere kontuan hartzen dute.- Azkenik, hirigintzari dagokionez, adierazi du hiri lurzorwaren iragazkortasuna sartu behar dela estrategian.
DEBAGOIENA	1.2.1 Hemen ere ados dagoela adierazi du, baina,	1.4.4 Hobariak gehituko lizkioke kontsumo	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	<p>oro har, ekintzak gauzatzeko orduan (plangintza, dimentsioa ematea, instalazioak...), zehaztu du kontuan hartu behariko litzatekeela nekazaritza lurrak ahalik eta gutxien okupatzea eta natura baliabideei errespetua izatea.</p> <p>1.2.3</p> <p>- Estrategian sartzen ez bada ere, koordinazioa behariko litzateke bermatzeko basoak ez direla kudeatzen energia ekoizpenaren ikuspegitik soilik.</p> <p>1.2.4</p> <p>Industriak sortzen dituen beroak aurkitzeko lan bat egin behariko litzateke. Lehen sektoreko kontsumoetarako aprobetxatzea iradokitzen du (berotegiak, zerrategiak).</p>	efizienteari.	
BERGARA	<p>1.2.1 eta 1.2.2</p> <p>- Dirulaguntzen bidezko lankidetzeta ondo iruditzen zaio (dirulaguntzak zenbateraino iristen diren baloratu gabe), baina azkenean 4/2019 Legeak lan eta erantzukizun asko jarri dituenez udalen gainean, eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak ez direnez berdinak guztietan, diruz laguntzea bakarrik ez da nahikoa eta teknikoki ere lagundu behar dira, energia plangintza eta kudeaketa sustatu nahi badira eskualde eta udalerrietan.</p> <p>- Eskualde mahaiek laguntzen dute, baina jakin nahi du ea beste nolabaiterako laguntza egituratu daitekeen edo bestelako mekanismoren bat aurreikusten duen, udalerrietako energia plangintza koherentea izan dadin lurralde historiko osoan. Denok norabide berean goazenez,</p>		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

DEBAGOIENEN MANK.	<p>eta legeak ere halaxe markatzen duenez, irizten dio plangintza guztiek elkarrekin loturik egon behar dutela.</p> <p>1.2.3 eta 1.2.4</p> <p>Interesgarria iruditzen zaio lurralde mahai edo foro bat izatea, eskualde edo udalerrri bakoitzean egiten diren ekimenak jasoko dituen eta horiek lehenetsiko dituen eredugarritasunaren edo efizientziarako ahalmenaren arabera.</p>		
GOIENER	<p>1.2.3</p> <p>Azalpenean aipatzen da komunitate energetikoen gaia, baina ez du ikusi dokumentuan. Europako zuzentzauek oso argi ezartzen dute zer izan behar duten komunitate energetikoei. Espainiako legediak aipamen bakarra egiten du, eta adierazten du komunitate horiek ez dituztela bultzatuko finantza irabaziak, hau da, aurrezpen ekonomikoa bai, lanpostuak sortu bai, ekonomia mugitu bai, baina etekin ekonomikoak lortzea ez dela izango lehentasuna. Hala ere, estrategian «negozio ereduak» ikusten duen guztian beidurra sortzen zaiola esan du, kasu horietan</p>		<p>1.5.1 eta 1.5.3</p> <p>- Birgaitze integralak kostu ekonomiko handia dute, eta, diruz laguntzen ez badira, gehien behar dutenek zailtasunak izango dituzte horretarako. Garrantzi handia ematen dio plangintza horiek faseka egiteari, inbertsio handiak aldi bakarrean egin ez daitezen.</p> <p>- Bestalde, adierazi du Energiaren Euskal Erakundeak ireki berri duela Open Aretoa, zeina Repsolekin lotu baitu; horregatik, kezkatuta agertu da enpresa handiek negozioa egiteko duten arriskuagatik, iruditzen baitzaio estrategia honetan eredu aldatu nahi dela.</p>



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

empresia handiek parte hartzen dutelako eta empresa horiek etekinak bilatzen dituztelako. Horretaz gainera, azkenaldian ikusten diren proiektuetako asko kamufiatuta daudela uste du, batez ere irabaziak nahi dituzten enpresen aldetik.		
---	--	--

Aktan kontsulta daitezke saioan egindako azalpenak. Besteak beste, bertaraturakoan kezka nagusiak ulertzeko interes handiena dutenak nabarmentzen dira (eta osatu egiten ditu xehetasunei dagokienez):

- Estrategia garatzeak nekazaritza lurzoruan eta natura balibideetan izan ditzakeen ondorioen gaineko kezari dagokionez: horrela planteatuta dagoela baieztatzen da, hori da Ingurumen Departamentuaren ikuspegia. Hori dela eta, hasteko eta behin, energia kudeatzeko hierarkian eragiten da: lehenik, efizientzia, eta, ondoren, instalazio berriztagarriak (eta haien dimentsioa zehaztea). Proiektu jakinen ordezkotz aukera posibleen balioespen askotarikoak argitzeko, 1.3.1 ekintza (*Azterketak, ereduak eta estrategiak prestatzea eta garatzea teknologia berriztagarriak eta bestelako energia teknologikok ezartzeak eta optimizatzeak*) eta 2.6 apartatua jasotzen dira (*Zer berriztagarri buruz ari gara eta nola ezarri modu jasangarrian Gipuzkoan [dokumentuaren C atala]*). Ingurumen azterketa estrategikoaren edukiak ere aipatu behar dira, estrategiaren proiektuaren parte baita. Dokumentua oso errepikakorra da, zehazterakoan helburua ez dela ahal dugun energia guztia sortzea, jarduerak mantentzeko behar-beharrezkoa den energia sortzea baizik. Era berean, ahal den guztia egin behar da energia berriztagarriak era guztietako eraikinetan instalatzeko (industrian, landa eremuan, bizitegietan, eta abarretan), betiere kontsumo puntuari oso lotuta badaude, edo aldameneko lursailean, ahal den neurrian lurzorua artifizializazio berririk sahestuz. Funtsezkoa da denok oso adi egotea ezartzen hasi diren ereduekin, eta gai izatea pilotu horietatik ikasteko eta irizpideak txertatzen joateko, izan araudian, hirigintza eta eraikuntza jardueran, herritarren energia kultura, energia komunitateen sorreran, kontuan izanik kontsumo sektore mota guztiak inplika ditzaketela.
- 1.2.1 ekintza aurreikusten da (*Energia Jasangarriaren eta Energia Pobreziaaren Lurralde Mahaia sustatzea eta Gipuzkoako eta eskualdeetako estrategiak koordinatzea*) plangintzak elkarrekin konektatzeko.
- Gipuzkoako hondar beroaren mapa.

Komunitate energetikoen figurarekiko kezari eta estrategian kontuan hartzeari dagokionez, bilkuran emandako azalpenak zabaldu dira:



«Energia berriztagarrien komunitatea» (2018/2001 Zuzentaraua) eta «energiarako herritarren komunitateak» (944/2019 Zuzentaraua) figurak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen ari dira. Eta oraindik izena fintzen ari den arren, erakunde juridiko mota berri horren funtsezko helburuari buruzko seinaleak ematen ari dira dagoeneko. **Helburu horrek, hain justu, izan behar du ingurumen, ekonomia edo gizarte onurak ematea jarduten duen eremuetako bazkidei edo kideei, eta ez finantza irabazi hutsak.** Hori da zuzentzarauen agindua, eta oso argi utzi dute.

Estrategiak energia sorkuntzari dagokionez proposatutako eredu guztiz lerrokatu dago Europako zuzentzarauen «neguko paketearekin», eta, **beraz, iturri berriztagarrietatik autokontsumorako energia banatua sortzearen alde egiten du.** Hau da, **ez da energia modu banatuan sortzea sare orokorrera isurtzeko eta merkatutzeko, baizik eta kontsumo puntu jakin baten energia beharrak zuzenean hornitzeko, hau da, eraikin baten beharretara begira (edozein sektoretako).** Eredu berri horretan, energiak utzi egin behar dio espekulaziozko salmenta objektu izateari. Zehazkiago eta gaurkotasan handiko adibide bat ipintzearen, estrategiak proposatzen duen fotovoltaikoaren ezarpen eredua 368. orrialdean dago definituta (proiektuaren testu osoa), eta, Europako zuzentzarauen arabera, eraikin kontsumitzailean bertan sortzen dituzten instalazioak ditu, ahal dela estalkian edo haren ingurune hurbilenean, lurzoruaren artifizializazioa areagotu gabe eta kontsumo propioko beharrak hornitzera begira (edo hurbileko kontsumitzaileekin partekatuzko, 500 m baino gutxiagora daudenak). Eredu horrek energia aurrezte eta efizientzia lortzen laguntzen du; izan ere, zenbat eta efizientzagoa izan eraikina eta zenbat eta gutxiago kontsumitu, orduan eta txikiagoak izango dira ezarri eta mantendu behar diren energia sortzeko instalazioak. Horrela, gainera, minimizatu egiten dira instalazio horien ballabide materialen beharrak.

Ezarpen eredu hori hainbat negozio eredutatik abiatuta egin daiteke, udalek eta Aldundiak teiatu publiko eta/edo pribatuetan bultzatutako energia komunitateak (finantzaketa publiko eta pribatuarekin), edo are auzo erkidegoek berek bultzatuta, finka administratzailean laguntzarekin edo halakorik gabe, eta abar. Erkidego horiek—eta horietan ipinitako sorkuntza instalazioak—jaso dezakete enpresa pribatuen laguntza beren kudeaketa beharretan (juridiko-administratiiboak, osaera, baimenak eta lizentziak, instalazio eta/edo obra proiektua, merkatutzera, zerga betebeharrak, ustiapena eta abar). Une honetan, mota guztietako hainbat enpresa merkatuan kokatzen ari dira komunitate horiek ondasun eta zerbitzu horiez guztiez hornitzeko. Bidezkoa da hori. Garrantzitsuena da negozio eredu horiek bidezkoak izatea—eta legezkoak, noski—eta errendimenduen banaketa orekatua ziurtatzea, hau da, kontsumitzaile/prosumitzaile bakoitzaren ahultasun energetikoa minimoetara eramango duen merkataritza trukea. Hala egin ezean, **zera lortuko litzateke: petrolioan oinarritutako eredu jasanezin batetik berriztagarrietan oinarritutako eredu jasanezin batera igarotzea.** Hain zuzen ere, berme hori lortzeko, departamentu honek egin nahi duen ahalegina Gipuzkoako herritarren interes orokorra betetzera eta defendatzera bideraturik dago. Eta, horretarako, irizpideak, laguntza eta arbitrajea ezartzen ditu trantsizio prozesurako; hau da, energia bertikala eta zentralizatua sortzeko eredu batetik autokontsumo justu eta sozializatutako energia banatua sortzeko eredu batera igarotzeko. Horrexegatik idatzi da estrategia hau, oinarri dokumentu zabal gisa.



«Negozio eredu» terminoa ez da irabazietan marjina handiak eta mamitsuak lortu nahi dituzten enpresen jabetza kontzeptual eskusiboa. «Negozio» terminoak—hiztegiak jasotzen duenez—implika dezake jarduera handia zein txikia, eta irabazi asmoaren konnotazio handiagoak edo txikiagoak izan ditzake. Baina argitu nahi da **estrategiak erabaki duela termino hori aldarrikatzea eta nahita erabiltzea Gipuzkoako herritarren interes orokorra eta interes publikoak erabat txertatu izana irudikatzeke, dela energia eredu berraren erdigunean, dela erabakiak hartzerakoan**. Horretarako arrazoia da, hain zuzen ere, energiaren sektoreko giro industrializatuan nagusi den hizkuntza berean bidaltzea seinaleak, baina denon artean sortzen ditugun irizpideen arabera berriro interpretatzeko, pentsatzeko eta aplikatzeko.

Baina, estrategiaren funtsen artean sartzen den bezala, trantsizioan bertan edo etorkizuneko agertokian mantentzeko, **gutiz beharrezkoa izango da tokiko ehun ekonomikoaren laguntza** (aholkulariak, instalatzaileak, hezitzaileak, praktiketako ikasleak, erakitzzaileak, teknologoak, ikertzaileak, argiketariak, fabrikatzaileak, merkaturatzaileak, finka administratzaileak, eta beste hainbat). Bestela, hala egin ezean eta babesik gabe, gerta liteke herritar gehienek ez lortzea. Parte hartzeko delibrazio prozesu horren ekarpenak irakurri besterik ez dago profesionalen artean ere ageri diren informazio eta aholkularitza premiez jabetzeko. Energiaren arloko ondasun eta zerbitzuen eskaintza horren guztia ren hedapen egokia da—gazte titulatutako berriak ere erakar ditzake— **estrategian jasotako ekintzaren garapenarekin lotuta datorren aberastasuna, edo, nahiago baldin bada, 2050eko agertokirako eta lurraldeko ehun ekonomikorako kalkulatu diren inpaktu sozioekonomikoak**, hala nola barne produktu gordinaren igoera, ekoizpena areagotzea, familien errenta, enpleguak... Eta, horretarako, beharrezkoa da lurraldeko ehun ekonomikoak bizkor bat egitea eskaera berraren eskakizunekin, eta ezinbestekoa da, orobat, birmoldatutako multinazionalak eta beste enpresa handi batzuek dagoeneko inprimatzen ari diren eritimoa hartzen ahalegintzea, ekimenak dagoeneko garatzen ari baitira eta gure ordezkari politikoez—ideologia guztietakoak—aurrera egin baitute. Komeni da begien bistan edukitzea, efitzientziaz gainera, premia bizikoa dela erregai fosiletatik sortutako energia atzean uztea ere.

Hori horrela, estrategian adierazitako planteamendua—zeina luze-zabal deskribatu baita orrialde guztietan zehar eta, bereziki, ereduaren kapituluak—erabat bateragarria da Europako zuzentarauen espirituarekin eta energia komunitate batek izan behar duenarekin. Datorren maiatzaren 28an, Usurbilgo Lanbide Eskolarekin, komunitate energetikoei buruz antolatutako jardunaldiaren berri eman da. Saio horretan, IDAE, KREAN, EDINOR eta GOIENER aritu dira.

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.



Eskertzeakoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.7.- DELIBERAZIO SAIOA: TOLOSALDEA

Eguna: 2021/05/24

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 9 (emakume 2 eta 7 gizon)

Erakunde kopurua: 6

- Udalak: Villabona, Alkiza, Tolosa, Zizurkil
- Garapen ekonomikoko eskualde agentzia: TOLOSALDEA GARATZEN
- Landa garapeneko eskualde elkartea: TOLOMENDI

Ekarpen kopurua 2

Ekarpenen analisisa:

ERAGILEA	1.2. JARDUERA ILDOA	1.4. JARDUERA ILDOA
TOLOSA	1.2.1 Proposatutako du urte hasieran urtean zehar aterako diren dirulaguntzen berri ematea, horiei dagokien antolaketa eta plangintza egin ahal izateko. Azkenaldian dirulaguntza zaparrada ari da izaten, eta teknikiariek ez dituzte guztiak aurrera ateratzen.	1.4.4 - Adierazi duenez, 15/1989 Foru Araua, udalietako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena, oztopo izan da udalerrian. Izan ere, instalazio fotovoltaikoek eta termikoek laguntza izan dezaketela bakarrik aipatzen da, baina ezin izan die hobaria aplikatu beste teknologia batzuei, hala nola biomasa eta geotermiari. Proposatzen du foru arau hori berrikustea eta hoberi hori beste teknologia batzuetara ere aplikatu ahal izatea.

Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.



Eskertzeakoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.8.- DELIBERAZIO SAIOA: GOIERRI

Eguna: 2021/05/27

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 7 (emakume 2 eta 5 gizon)

Erakunde kopurua: 7

- Udalak: Beasain, Ordizia, Olaberria, Mutilloa, Itsasondo

- Garapen ekonomikoko eskualde agentzia: GOIEKI

Ekarpenen kopurua: 2

Ekarpenen analisia:

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.3 JARDUERA ILDOA
GOIEKI	<p>- Eskualdeko mahaia joan den astean elkartu zen. Haren planen artean dago, konparazio batera, eskualdeko energia plana berrikustea aurren.</p> <p>- Interesgarria iruditzen zaio beste eskualde batzuetako energia mahaien osaearen berri izatea. Goierriren kasuan, orain arte udaletako ordezkariak parte hartu dute, baina agian interesgarria litzateke beste eragile batzuei ere zabaltea. - Interesgarria litzateke lan saioak antolatzea, mahaien osaeari buruzko esperientziak trukatzeko.</p>	<p>1.3.3</p> <p>- Agentzian badute pertsona bat, gradu amalerako lana prestatzen eta hidrogenoaren balio katea aztertzen ari dena (Goierrri eskualdean zer agente dauden, zer implikazio duten, eta abar). Interesa agertu duten hainbat agente identifikatu dituzte. Esan duenez, ez dute arazorik azterlan hau partekatzeko.</p>

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.



Eskualdeko energia mahaiaren osakerari eta funtzionamenduari buruz adierazitako interesari dagokionez, lurraldeko energia mahaiaren hurrengo saioen programan monografiko gisa sartzeko proposamena jaso da.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.9.- DELIBERAZIO SAIOA: UROLA GARAIA

Eguna: 2021/05/28

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 8 (emakume 5 eta 3 gizon)

Erakunde kopurua: 8

- Udalak: Zumarraga, Urretxu, Legazpi
- Garapen ekonomikoko eskualde agentzia: UGGASA
- Landa garapeneko eskualde elkartea: GOIMEN
- Ingurugela/CEIDA
- Urola Garaiko Lanbide Eskola

Ekarpenen kopurua: 6

Gainera, bileraren ondoren, Ingurugelako ordezkariak ekarpen talde bat bidali zuen. Ondoren dago erantsita.

Ekarpenen analisia:

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA
UGGASA	- 1.2.1 eta 1.2.2 Urola Garaiko udalerrien ezaugarri berak dituzten beste hainbat udalerrri identifikatzea eskatu du, eta halek gauzatutako esperientzia edo proiektu zehatzak helaraztea. Hartara, lana erraztuko litzaieke garapen agentziei, herri bakoitzean zuzenean zer proiektu aurrera eraman jakiteko.	1.4.4 - Fiskalitatean esku hartzeko, udalari ordenantzak edo beste eredu batzuk identifikatzea eta helaraztea eskatu du; neurriak ezartzea erraztuko luke.
URRETXU	- Oso interesgarri zat du estrategia.	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	<ul style="list-style-type: none">- Udal gisa, adierazi du lan handia duteela 4/2019 Legeak orain ezartzen dituen betebeharrekin.- Udalag tokiko ekintzak eta ekintza praktikakoak lantzen ari dira.- Estrategia, beraz, beste maila batean kokatzen da.- Ondo ikusten du beste eskualde batzuetako proiektuen berri izatea, beren udalerrietan txertatu ahal izateko.	
LEGAZPI	<p>Udalean urteak daramatzate LEDak instalatzen, auditoriak egiten, sentsibilizatzen, eta abarretan.</p> <ul style="list-style-type: none">- Helburua eredu energetikoa aldatzea bada, benetako urratsak egin behar dira (energia komunitarioko proiektuak).- Ezinbestekotzat jotzen du herritarrei aholkularitza emateko bulego bat sortzea, herritarrek etxeetan egiten duten edozein obratarako energia hobekuntzen, diru laguntzen eta abarren berri emateko.	
GOIMEN	<ul style="list-style-type: none">- Ezin izan zen Goierriko salora joan.- Landa eremuan, energiaren auziarekin loturik, ez dute izan ez aditurik, ez lan handirik.- Baserritarren sektore osoan esku hartu behar dute.- Adierazi du jendearengana iristeko beharrezkoa dela alfabetatzea, baita maila teknikoan ere.- Energia berriztagarrirei dagokionez, eskatu du zehaztu egin behar direla irizpideak, ereduak, jardunbide egokiak eta lehentasunak. Horri buruzko zalantzak daude nekazaritzaren sektorearekin loturik.- Biomassaren erabilerrari dagokionez, baso pribatuaz gain, udal jabetzakoa ere badela adierazi du, eta hor koordinazio aukerak egon daitezkeela baliabide hori aprobetxatzeari begira.	
INGURUGELA	<p>1.2.1</p> <ul style="list-style-type: none">- Legazpin duten bulegoan, energiari lotutako arrasto txiki bat izaten saiatzen dira, eta auditoria gainditu berri dute.- Bere lan esparrua ikastetxeak dira, Eskolako 2030 Agenda. Ikasleak jabetzen dira herriaren erreallitateaz.- Funtsezko alderdiak:<ul style="list-style-type: none">- Ingurumena babestea energiaren efizientziaren gainerik.- Egitura energetikoak, berriztagarriak eta «zurriak», ondo neurtutako inpaktoekin, adostuta, beti gutxienezkoetara jotz.- Tokian-tokian:	<p>1.4.1</p> <ul style="list-style-type: none">- 50/50 proiektuan parte hartu dute, zeinean agerian utzi baitituzte zentro bakoitzaren gaitasuna eta ezaugarriak.- Ikastetxeetan landutakoaren garrantzia azpimarratu du, ondorioak etxetara eta herrira eramaten baitira.- Ikastetxeetan autokontsumoa bultzatzea. Prestakuntza, baliabideak, bitartekari digitalak eskaintzea.- Kontsumitzaileen sareak bultzatzea.- Eragileekin lankidetzan aritzea kolektibo bakoitzean. (Ikastetxeak, Ingurugela, baserritarrak, landa garapenerako agentzia, Udaleko



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

<p>(a) Autokontsumoa bultzatzea, prestakuntza, erraztasunak eta ballabideak eskainiz.</p> <p>(b) Energiaren efizientziako estrategia zehatzak identifikatzea, tokian tokikoak eta kasuz, eta udalerrian zabaltzea.</p> <p>(c) Herritarrentzako aholkularitza zerbitzua, egonkorra eta identifikatzeko erraza. Herritar bakoitzaren egoera zehatzari buruzko informazio erabilgarria lortzeko gunea.</p> <p>(d) Erantzukizuna partekatu egin behar da. Horretan pedagogia egin behar ko litzateke.</p> <p>1.2.3</p> <ul style="list-style-type: none">- Jardunbide egokiak bultzatzea.- Kolektibo batzuk eta besteak identifikatzea (kontsumoaren ikuspegitik) eta horietako bakoitzarentzako estrategia zehatzak lantzea, guztia ere efizientzia, aprobetxamendua, autokontsumoa eta ingurumenarekiko konpromisoa garatzeko. Jardunbide egoki horiek sustatzea, behin eta berriz babesa ematea.- Auzolana bultzatzea, oinarriko hobekuntzak ezartzeko.- Kontsumoak bat etorri behar du ekonomia zirkularraren printzipioekin.- Hausnarketa bultzatzea. Zuzenean informatzea.	mantentze lanetako arduraduna...)
--	-----------------------------------

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapeneri; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Landa garapeneko agentziak estrategian integratzeari dagokionez, eskualde mailan landa ingurunearen interesak ordezkatzeko eragileak diren aldetik, egoki bideratutzat jotzen da 1.2.1 eta 1.2.2 ekintzen bidez, eskualdeko mahai energetikoan duen inplikazioari, eskualdeko jasangarritasun energetikoaren arloko plangintzari eta gai horrekin loturiko jarduketara orokorragoari dagokionez –betiere eskualdeko garapen ekonomikoko agentziarekin koordinatuta–. Beste horrenbeste 1.4.2 ekintzarekin loturik ere (*Energia kudeaketa jardura ekonomikoetan: eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak hobetzeko laguntza tresnak eta pizgarriak*), zeinean adierazita baitago departamentu eta eragile eskudunen inplikazioa jardura sektore batzuetan eta besteetan. Gainera, estrategiaren beste ekintza batzuetan ere txertatuta daude landa eremuak behar espezifikoak, beste gai batzuei dagokienez (informazioa, etxetako aholkularitza, fiskalitatea, eta abar).



Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.10.- DELIBERAZIO SAIOA: UROLA ERDIA

Eguna: 2021/06/08

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 8 (emakume 6 eta 2 gizon)

Erakunde kopurua: 5

- Udalak: Azpeitia, Azkoitia, Zestoa
- Eskualdeko garapen agentzia: IRAURGI LANTZEN
- Landa garapeneko eskualde elkartea: URKOME

Ekarpenak: 2

Ekarpenen analisia:

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA
AZPEITIA	1.2.1 - Eskualdeko hitzarmena urtebetekoa soilik izateak nolabaiteko muga dakar. Ezinezkoa da urtebete baino gehiago daramaten proiektuak gauzatea. Hainbat urtetakoak izatea eskatuko lukete. - Diotenez, bospasei urte igaro dira eskualdeko energia plana egin zela, baina legedi berriak behartu egiten du plan hori eguneratzera. Adierazi duenez, Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmeneko laguntza plan hau berritzeko erabiliko bultz, laguntzarik gabe geratuko lirateke gainerako proiektuetarako. Gaineratu du agian horretarako aprobetxa daitkeela Energiaren Euskal Erakundeak aterako duen dirulaguntza bat, baina azpimarratu du Foru Aldundiaren laguntza beharrezkoa izango litzatekeela bigarren belaunaldiko eskualdeko energia plana egiteko. - Trantsizio energetikoan egin behar diren lanetan, herrien artean arrakala sortzeko arriskua ikusten du. - Gipuzkoan herri txiki asko dago eta, haren esanean, denek ez dute erkidetzeko ohiturarik, Urola Erdiaren kasua ez behintzat, ziurrenik udalerrri bakoitzak dituen ezaugarriengatik. - Energiarekin lotutako proiektuak edo planak gauzatzeko, horren guztia jarrailpen teknikoa egin behar da (balidintza agiririk...), eta, herri txikietako baliabideak kontuan hartuta, Urola Erdiko eskualderako, gutxienez, Foru Aldundiak aholkularitza teknikoko zerbitzu bat gaitu beharke luke.
ZESTOA	



- Kezkatuta dago dirulaguntzaren zatirik handiena biztanle gehien dituzten herriei ematen zaielako, nahiz eta badakien hirigune handiek izango dutela inpartu energetiko handiena.

Hitzarmenen indarraldari dagokionez, dirulaguntza batekin lotutako lankidetzak esparri oro oso mugatuta etorri ohi da Foru Ogasuneko Kontu-hartzailetzatik; gainera, hitzarmena onartzen denean, beharrezkoa da etorkizuneko kredituak edukitzea aurrekontuan prest. Hala eta guztiz ere, aztertu dute gai hori eta 2022rako eta 2023rako partidak sartu dira 2022ko aurrekontu proiektuan, agentziekin energiaren alorreko eskualdeko plangintzaren eta kudeaketaren arloko lankidetzak hitzarmenen hurrengo indarraldiak bi urte har ditzan.

Eskualdeko energia planaren berrikuspeneri dagokionez, zabaldu egin dira bilkuran emandako azalpenak:

Eskualdeko garapen ekonomikorako agentziekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren eta harekin loturiko laguntza ekonomikoaren helburua da elkarriketa eta dedikazio tekniko eta ekonomikoa sustatzea eta ziurtatzea eskualdean –antolatua, sistemizatua, planifikatua eta parte hartzailea– energia plangintzari eta ekintzari dagokienez, sektore kontsumitzaile guztientzat lan egiteko eta eskualdeko energia mahaia sortzeko eta dinamizatzeko. Zehazkiago esateko, eta beste ororen gainetik, **eskualdeko hitzarmenari lotutako laguntza ekonomikoak (50.000 €) eskualdeko energia plana egiteko eta eguneratzeko balio behar du**, eta koordinatutarik eta lerrokaturik jardun behar du arlo horretako foru plangintzarekin –alegia, estrategia honekin–.

Departamentuak modu aktiboan defendatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko energia jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legea betetzea, eta, oso bereziki, sektore publikoari dagokionez. Hori dela eta, laguntzei buruzko urteko dekretuak (udalak, kirol ekipamendu publikoak eta toki erakundeak, baita 1.2.1 ekintzan ere) eta sektore publikoko profesionalentzako prestakuntza programak gainera (1.4.3 ekintzaren zati bat), aukera eman da, baita legea indarrean sartu baino askoz lehenago ere, eskualdeko hitzarmenaren kontura zenbait ekintza egiteko, proportzio txikian betiere, eraikinen, instalazioen eta parkeen energia kudeaketaren arazoetara hurbiltzeko. Eginiko esku hartze horien artean sartzen dira, besteak beste, energiaren fakturazioa eta monitorizazioa aztertzea, azterlanak egitea edo instalazio berriztagarrien bideragarritasunari erreparatzea. Hori guztia mesedegarritzat jotzen zen udal teknikariak energiaren eskualde mahaian gerturatzeke, arazo bat guztien artean aurkezteko, elkarrekin ikasteko eta, azken buruan, prozesua dinamizatzeke. Baina ez besterik, bestela erabat indargabetuta geratuko bailitzateke hitzarmenaren xedea, eta eskualdeko gainerako kontsumitzaile sektore guztiak, berriz, arretarik gabe. Eskualdeko hitzarmenak ezin du bere gain hartu zama hori, eta, horregatik, udal sektore publikoaren energia jarduketako planek beste laguntza bide bat aurkitu beharke dute; departamentuaren laguntzen urteko dekretuak gainera, guztiz egokitzat jotzen da udalek laguntza eskatzea legea eman duen administrazioari.



Ulertzen da Urola Erdiko energia mahaiaren ardura direla eskualde horretako hitzarmenari lotutako zenbatekoa banatzeko irizpideak. Irurgiri Lantzen Azpeitiko eta Azkoitiko garapen ekonomikoko erakundea bada ere, hitzarmenak Zestoak, Errezil eta Beizama ere biltzen ditu. Hirigune handiek inpaktu energetiko handiagoa izateak (eta ez zaio egiten erreferentzia sektore publikoari) ez du esan nahi Zestoak, Errezilek eta Beizamak urteko errendimendurik lotu nahi ez dutenik. Kontuan hartu da adierazitako beharra, baina hiru udalerri horiek erkidetuta ez egoteko arrazoiak alde batera utzita, adierazi behar da hitzarmenaren zenbatekoak ematen duen ratioa (€/biztanle) apala izanik ere, nabarmen handiagoa dela beste eskualde batzuetakoa baino.

Kontrastea oso interesgarria izan da, eta udaletako egoeraren ekarpenak, berriz, oso adierazgarriak. Kasu honetan, uste dute estrategiak erantzuten diola planteatutako problematikari. Esan bezala, departamentuak dagoeneko jarri ditu baliabideak eskualdeko hitzarmenen indarraldia luzatzearekin loturiko auzia konpontzeko. Adierazitako beste beharrei dagokienez, departamentuaren laguntzak jasangarritasun energetikoaren arloko dirulaguntzen urteko dekretu horretan daude aurreikusita. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi ez direnik aurkeztuko etorkizunean udalei laguntzearekin lotutako alderdi guztietan egin daitezkeen hobekuntzak, beste baliabide batzuk balliatuz. Horri dagokionez, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Eskertzeakoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.11.- DELIBERAZIO SAIOA: BESTE ESKUALDE BATZUK ETA DONOSTIAKO UDALA

Eguna: 2021/06/14

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 16 (emakume 11 eta 5 gizon)

Erakunde kopurua: 12

- Udalak: Irun, Hondarribia, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil, Astigarraga, Andoain, Donostia, Urnieta
- Garapen ekonomikoko eskualde agentziak: BIDASOA BIZIRIK, UROLA KOSTAKO ELKARTEA, BETERRI-BURUNTZA UDALAK

Ekarpenen kopurua: 2

Ekarpenen analisia:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA
DONOSTIA	1.2.3
	<p>- Interesa sortzen dio jakiteak Naturklimak zer eginkizun izango lukeen 1.2.3 ekintzan. Harritu egiten du Naturklima administrazio publiko gisa ikusteak, ulertzen baitu ekintza horrek administrazioen arteko lankidetzari egiten diola erreferentzia.</p> <p>- 1.2.3 ekintzari dagokionez, azaldu du Donostiako Udalak oso proposamen zehatza duela: San Markoko zaborteagian instalazio fotovoltaiko bat jartzea. Hala ere, proiektu korapilatsua dela ere adierazi du, hiru udalek eta mankomunitate batek esku hartzen baitute. Horregatik, Jonek uste du Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu dezakeela inplikaturako erakunde guztiak koordinatzen eta bateratzen.</p>

Bi gaiet buruz bilkuran emandako azalpenak areagotu dira:

Naturklima foru erakundeari dagokion ekimena da %100ean, publikoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuari atxikita dago. Haren eginkizun zati bat klima aldaketaren Gipuzkoako behatokia garatzearekin dago loturik. Era berean, baditu beste bi funtzio ere: bata, ekonomia zirkularren arloko proiektu berritzaileak bultzatzera bideratua, eta, bestea, energia berriztagarrien bultzadarekin batera doana; izan ere, ulertzen da bi arintze estrategia erabakigarri direla, zeinak klima aldaketaren aurkako borrokaren parte garrantzitsua baitira. Departamentuaren ustean, fundazioak, eragile bideratzaile eta sustatzaile gisa, lagundu dezake esparru pribatuarekiko harremanean berriztagarriak lurraldean ezartzeko proiektuak azkarrago hedatzeko orduan, baina Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin erabat koordinatuta. Gipuzkoako gobernantza energetikoaren eskemaren (5. atala – C zatia) eta estrategia honetako 1.2.3, 1.6.1, 1.6.2 eta 1.6.3 ekintzen bidez zehaztu nahi da zer-nola zabalduko den Ingurumen Zuzendaritzarekin lankidetzan jarduteko eredu hori etorkizunean. Hala ere, auzi hori fundazioko ordezkariekin ere landu behar da, eta ez prozesu honetan haiekin egingo den kontrastearen bidez soilik (ikus 2021/06/30eko saioa, Naturklimarekin eginikoa).

Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat eragile (instituzionalak, pribatuak, beste batzuk) inplikatzeko proiektuen eragile solaskide, bideratzaile eta katalizatzaile gisa eman lezakeen laguntzari dagokionez, horixe da, hain zuzen ere, estrategiaren proposamena osatzen duten ideia nagusietako bat: eredu berriarrekin loturik dagoen multilidergoaren koordinazioa (2.8 atala – C zatia: *toki eragileen aliantza ezinbestekoa da aldaketa gauzatzeko: multilidergoan oinarritutako tokiko gobernantza energetikoa*). San Markoko zaborteagiko proiektu fotovoltaikoari dagokionez, uste da hau ez dela esparru egokia horri buruz iritzia emateko; proiektu bakoitzak funts desberdinak ditu, eta dagokion instantziaren aurrean azertu behar da.

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.



Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.12.- DELIBERAZIO SAIOA: UNIBERTSITATEAK, TEKNOLOGIA ZENTROAK ETA LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK

Eguna: 2021/06/01

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 8 (emakume 4 eta 4 gizon)

Erakunde kopurua: 7

- Unibertsitateak. Deustuko Unibertsitatea (Energy Lab-Orkestra), EHU (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola),
- Teknologia zentroak: TEKNIKER, IKERLAN, TECNALIA RESEARCH AND INNOVATION,
- Lanbide Heziketako ikastetxeak: Tolosako Inmakulada lanbide ikastola, Hernani Lanbide Heziketa

Ekarpenen kopurua: 14

Ekarpenen analisia:

Bertaraturako erakunde batzuek arreta berezia ipini dute, eta zehatz-mehatz azaldu dituzte alderdi hauekin loturiko auziak: jarduera arloak, gaitasunak eta interes handiena pizten dute proiektu eta auziak, estrategiaren garapen bidearekin lerrokatze aldera. Horrek guztiak balio handia du, zailtzarrik gabe. Ekintza hauek sortu dute interesik handiena: 1.2.3,1.2.4, 1.3.1, 1.3.2, 1.3.3, 1.6.1, 1.6.2 eta 1.6.3.

Azaldu denaren arabera (ikus Debagoieneko saioa, 2021/05/21ekoa) eta strategiaren funtsen artean sartzen den bezala, trantsizioan bertan edo etorkizuneko agertokian mantentzeko **guztiz beharrezkoa izango da tokiko ehun ekonomikoaren laguntza** (aholkulariak, instalatzaileak, hezitzaileak, eraikitzaileak, teknologoak, ikertzaileak, argiketariak, fabrikatzaileak, merkatutzaileak, finka administratzaileak, eta beste hainbat). Irizten diote trantsizio energetikoa ezin dela ondo gauzatu haien etengabeko laguntzarik gabe. Parte hartzeko delibrazio prozesu horren ekarpenak irakurri besterik ez dago profesionalen artean ere ageri diren informazio eta aholkularitza premiez jabetzeko. Energiaren arloko ondasun eta zerbitzuen eskaintza horren guztiaren hedapen egokia da—gazte titulatu berriak ere erakar ditzake— **estrategian jasotako ekintzaren garapenarekin lotuta datorren aberastasuna**, edo, nahiago baldin bada, 2050eko agertokirako eta lurraldeko ehun ekonomikorako kalkulatu diren inpartu sozioekonomikoak, hala nola barne produktu gordinaren igoera, ekoizpena areagotzea, familien errenta, enpleguak... Eta, horretarako, beharrezkoa da lurraldeko ehun ekonomikoak bizkor bat egitea eskaera berraren eskakizunekin.



TEKNIKER, IKERLAN, TECNALIA, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (EHU) eta Deustuko Unibertsitateko Energy Lab prozesu honetako informazio balantzearen funtsezko zati dira, eta, beraz, baita departamentuarena ere. Informazio hori interesgarria izan daiteke prozesu honetan esku hartu duten eragile guzientzat, eta argitaratuta aktetan dago oso-osorik jasota.

Analisi horren ardatza izango da estrategiaren edukiei buruzko eztabaida aberasteko ekarpen orokor eta interesgarrienak laburbiltzea eta jasotzea.

ERAGILEA ENERGY LAB - DEUSTUKO UNIBERTSITATEA.	1.2 JARDUERA ILDOA	1.3 JARDUERA ILDOA 1.3.1 - Adierazi du garrantzitsua dela teknologia batzuen eta besteen bizi zikloa aztertzea.	1.6 JARDUERA ILDOA 1.6.1 - Interesgarria litzateke, energia komunitatez gain, beste modalitate batzuen egokitasuna aztertzea. - Aldi berean, lurralde honetan ekarpena egin dezaketen sektore eta azpisektore ekonomikoan balio kateak aztertzea, teknologiaren eta kanpoko ekipamenduen mende egon beharrik ez izateko. 1.6.3 - Komenigarria da balioestea nola dagoen lan eta prestakuntza merkatua Euskadiko sektore berdean (jasangarria, ingurumenekoa, ekologikoa, eta abar). Unibertsitatean eta lanbide heziketan dagoen prestakuntza eskaintza aztertu behar da, uste baitute oso garrantzitsua dela eta zerregin garrantzitsua izan dezakeela. Beste helburu bat litzateke, orobat, enpresek mota horretako profilak eskatzen dituzten aztertzea. Azkenik, oso interesgarria iruditzen zaio unibertsitateen arteko lankidetzari lidoak irekitzea.
GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA – EHU.	1.2.3 - Eskualde eta toki mailan energia datuak eta adierazleak eskuratzeko	1.3.1 - Proiektuak, txostenak eta estrategiak lantzen ari dira tokian-tokian eta eskualdeetan, baita	1.6.3 - UPV/EHUk Eibarren duen egoitzan eskaintzen den ingeniarietako Energia Berriztagarrien Gradua Estatuan arlo



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

<p>(Ingeniaritza Energetikoko Saila)</p>	<p>zaittasuna nabarmentzen da. - Eskualde batetik bestera alde nabarremenak daude sektore bakoitzaren garrantziaren arabera, eta horrek erroitik aldatzen ditu estrategiak.</p>	<p>Espainiako beste eskualde batzuetan ere (adibidez, Balear Uharteetan). 1.3.3 - Hidrogeno berriztagarriari dagokionez, adierazi du sektore batzuetan interesgarria eta beharrezkoa izango dela, bai erabiltzen duten instalazioetan, bai temperatura oso altuko industrian (gainera, interesgarria izan behar du itsasontzi, hegazkin eta abarretarako ere).</p>	<p>horretan dagoen bakarra da (energia berriztagarriei buruzko master asko daude, baina ez graduak: UPV/EHUk, gainera, jasangarritasun energetikoko teknologiei buruzko master bat eta energiaren efizientziari buruzko beste bat ditu). - Ikasle askok energia berriztagarrien sektorean aurkitzen dituzte lan irtenbideak, nahiz eta oraindik merkatua gehiago zabaldu behar den.</p>
<p>TEKNIKER</p>	<p>1.2.3 - Uste dute energia komunitateek bilakaera handia izango dutela aurrerantzean, bereziki autokontsumoari dagokionez. Hasiera batean, uste du Gipuzkoak ez duela potentzialik handiena, baina optimizatu daitekeela ondo kudeatuz gero. - Nabarmentzekoa da, orobat, elektromugikortasunaren eginkizuna.</p>	<p>1.3.1 - Interesgarria iruditzen zaio teknologia berriztagarrien bideragarritasuna aztertzea Gipuzkoan; izan ere, instalazioa ekonomikoki bideragarria dela ondorioztatzen bada, ingurumen bideragarritasuna ere arrazoituta dago kasu gehienetan.</p>	<p>1.6.1 - Uste du tokiko merkatuak eta komunitate energetikoak direla Gipuzkoako energia berriztagarriak kudeatzeko ahalmena aprobetxatzeko gakoa.</p>
<p>IKERLAN</p>	<p>1.2.4. - Nabarmentzekoa da hondar beroaren aprobetxamendua.</p>	<p>1.3.1 - Adierazi du garrantzitsua dela datuak lortzeko zaittasunak gainditzea, bereziki teknologia berriztagarrien potentzialtasunaren analisietan sakontzeko.</p>	<p>1.6.1 - Energia ereduak aldatzen ari da, eta arlo ekonomikoa garrantzitsua da energia komunitateen auzia; hori horrela, disainatzen den proiektuak egingarria izan behar du; ondo aztertu behar da fakturen kontua energia komunitateetan, alegia, zenbat energia ematen duten bizilagunek, merkaturatzaileek eta abarrek. lldo horretan, azaldu du hainbat ikerketa ari direla egiten.</p>
<p>TECNALIA</p>			



Aktan kontsulta daitezke saioan egindako azalpenak.

Oso interesgarriak izan dira egindako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.13.- DELIBERAZIO SAIOA: ENERGIAREN SEKTOREKO ENPRESAK, ENPRESA ELKARTEAK, ELKARGO PROFESIONALAK ETA BESTE ERAGILE BATZUK.

Eguna: 2021/06/03

Formatua: online (Zoom)

Bertaratutako pertsona kopurua: 5 (emakume 1 eta 4 gizon)

Erakunde kopurua: 5

- Energia enpresak: GOIENER, EDINOR
- Elkargo profesionalak: Gipuzkoako eta Arabako Finka Administrazioa Lurralde Elkargoa (CAFGUJAL)
- Merkatarien elkarteak: DENDARTEAN (Gipuzkoako merkatari, ostalari, zerbitzu enpresa eta autonomoen elkarteak)
- Zerbitzu mankomunitateak: AÑARBEKO URAK SA (sozietate publikoa)

Ekarpenen kopurua: 17

Ekarpenen analisia:



Aurreko saioan bezalaxe, bertaratutako erakunde batzuek arreta berezia ipini dute, eta zehatz-mehatz azaldu dituzte alderdi hauekin loturiko auziak: jarduera arloak, gaitasunak eta interes handiena pizten dute proiektu eta auziak, estrategiaren garapen bidearekin lerrokatze aldera. Horrek guztiak balio handia du, zalantzarik gabe.

Azaldu denaren arabera (ikus Debagoieneko saioa, 2021/05/21lekoa) eta strategiaren funtsen artean sartzen den bezala, trantsizioan bertan edo etorkizuneko agertokian mantentzeko **guztiz beharrezkoa izango da tokiko ehun ekonomikoaren laguntza** (aholkulariak, instalatzaileak, hezitzaileak, eraikitzaileak, teknologoak, ikertzaileak, argiketariak, fabrikatzaileak, merkaturatzaileak, finka administratzaileak, eta beste hainbat). Irizten diote trantsizio energetikoa ezin dela ondo gauzatu haien etengabeko laguntzarik gabe. Parte hartzeko delibrazio prozesu horren ekarpenak irakurri besterik ez dago profesionalen artean ere ageri diren informazio eta aholkularitza premiez jabetzeko. Energiaren arloko ondasun eta zerbitzuen eskaintza horren guztiaren hedapen egokia da –gazte titulatu berriak ere erakar ditzake– **estrategian jasotako ekintzaren garapenarekin lotuta datorren aberastasuna**, edo, nahiago baldin bada, 2050eko agertokirako eta lurraldeko ehun ekonomikorako kalkulatu diren inpaktu sozioekonomikoak, hala nola barne produktu gordinaren igoera, ekoizpena areagotzea, familien errenta, enpleguak... Eta, horretarako, beharrezkoa da lurraldeko ehun ekonomikoak bizkor bat egitea eskaera berriaren eskakizunekin.

GOIENER, EDINOR eta DENDARTEAN elkarreke emaniko azalpen horien xehetasun guztiak funtsezkoak dira prozesu honen informazio balantzean, eta, beraz, baita departamentuarenean ere. Informazio hori interesgarria izan daiteke prozesu honetan esku hartu duten eragile guztientzat, eta argitaratuta aktetan dago oso-osorik jasota.

Analisi horren ardatza izango da strategiaren edukiei buruzko eztabaida aberasteko ekarpen orokor eta interesgarrienak laburbiltzea eta jasotzea.

ERAGILEA	1.2 JARDUERA ILDOA	1.4 JARDUERA ILDOA	1.5 JARDUERA ILDOA	1.6 JARDUERA ILDOA
EDINOR	- Estrategia argia eta erakargarria da. 1.2.3 - Funtsezkoa da udalak eta erakunde garrantzitsuen trantsizio energetikorako lider izatea.	1.4.1 Trantsizio horretan bi fase daudela azaldu du: (1) Saltokiei eta etxeei azaltzea zen den energia komunitate bat eta adieraztea zer ingurumen eta ekonomia onura ekar ditzakeen, eta (2) efizientzia handiagoz kontsumi dezaten sustatzea, faktura	1.5.1 - Azaldu du kontsumitzen ez den kilowatta dela garbilena. Gaineratu du birgaitzeak garrantzi handia izango duela energia kontsumoa murrizteari dagozkionez. - Europako zuzentzaruek adierazten dute herritarrek energia sortu,	1.6.3 Profi oso desberdinak beharko dira.



		ulertzen irakastea, energia elkarrekin erosten ikastea eta abar. Azken hori oso garrantzitsua da, eta herritarrek aztertu egin behariko dituzte zerbitzuak ematen dituzten merkaturatzaileak, ondoren erabaki bat hartzeko. Zeregin hori eta beste batzuk errazteko, badira hainbat tresna.	kontsumitu eta saltzeko gai izan behar dutela. Jakina, ereduak aldendu egin behar du ekoizpen enpresa handitik, eta energia sor dezaketen pertsona talde txikietarantz egin behar du.	
GOIENER	- Adierazi du estrategiak aurreikusten duela energia berriztagarrien komunitateak bultzatzea, eta azpimarratu du dokumentua ezinbesteko tresna dela herritarrek ahalduz, informatzeko eta laguntzeko, bai autokontsumoari dagokionez, bai energiaren alorrean.	1.4.1 - Hain aburuz, funtsezkoa da kontsumitzaileei laguntzea fakturak eta energiaren gainerako alderdiak ulertzen.	1.5.1 - Energia berriztagarrien komunitateak aukera gisa ikusten ditu, izan birgaitze lanetarako, aurrezteko eta efizientziarako, baina baita autokontsumorako ere. Azpimarratu duenez, urrats hauei jarraitu behar zaie: lehenik neurtu, gero murriztu eta, azkenik, autokontsumorantz egin.	
DENDARTEAN		1.4.1, 1.4.2 eta 1.4.3 - Hautatu, egokitu eta saltoki txikien sektorearen esku jarri behar dira energiaren kudeaketa hobetzeko zerbitzu eta tresna guztiak. - Saltoki txikietara bideratu behar dira Ingurumen Zuzendaritzak energiaren kudeaketaren arloan sustatzen dituen ekintzak. - Kanal hori bera ballagarria izan liteke herritarrei eta kontsumitzaileei beren etxeetako energia kudeaketari buruzko informazioa helarazteko.	1.5.1 - Saltoki txikien esparrua ere aztertu behar da, eta interesgarriak izan daitezkeen ekimenak eta tresnak bideratu.	
AÑARBEO URAK		1.4.1 - Añarbeko Urak sozietateak adierazi du badituela bere jarduerari lotutako energia ekoizteko instalazio batzuk. Azpimarratu du konplexua da araudi erregulatzailea horrek		



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

		segurtasun juridikorik eza ekartzen duela. lido horretan, adierazi du azken urteetan zenbait ekimen jarri dituztela martxan, eta gero eten egin direla arauak aldatu izanagatik.	
--	--	--	--

Aktan kontsulta daitezke saioan egingandako azalpenak.

Oso interesgarriak izan dira egingandako kontrastea eta ekarpenak. Kasu honetan ere, ekarpenen xede diren ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.14.- DELIBERAZIO SAIOA: ESTRATEGIA ETA GENEROA.

Eguna: 2021/06/09

Formatua: Aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 7 (7 emakume)

- M^a Teresa Arana – Larraulgo alkatea
 - Gloria Moya – Zubigune fundazioa
 - Raquel Sanz – SIs fundazioa
 - Andrea Estormés – Txekalde enpresa
 - Oihana Olloquegui – GO2 arkitektura
 - Beatriz Alvarez – genero eta lankidetzako aditua
 - Marta Ruiz Aguayo – Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Organoa
- Aurrekoez gainera: Garbiñe Olaberria eta Nieves Lazcano – Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusia zerbitzu teknikoak

Erakunde kopurua: 7



Ekarpenen kopurua: 28

Ekarpenen analisia:

Estrategiaren barruko ekintza aintzat harturik, genero inpaktuen ebaluazioa egin behar da. Eta idazketa prozesuan zehar aurretik egindako lana kontuan hartuta, esan daiteke parte hartzeko delibrazio-prozesu honetan eragileek kontrastatu duten strategiaren testua prest zegoela genero inpaktuari dagokionez. Bere garaiak:

- ✓ Eduki guztiak kontuan hartuta, genero egokitasuna identifikatu zen.
- ✓ Dagokion arau agindua aztertu zen (berdintasunean, energiaren eta klimaren arloan, parte hartzean).
- ✓ Sexuaren arabera bereizitako informazioa aztertu zen (pobrezia energetikoaren behatokia, Argitu...).
- ✓ Objektiboki, desberdintasun multzo bat identifikatu zen.
- ✓ Testuak berrikusi ziren, hizkera ez-sexista erabiltzeko.
- ✓ Genero inpaktu positiboa bermatzeko neurriak txertatu ziren, ekintza osorako zeharkako helburu estrategiko bat barmean harturik.

Horretaz gainera, Genero Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak eta Herritarren Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauak berak ezartzen dutenez, genero ikuspegiak kontuan hartu beharreko printzipioetako bat izan behar du parte hartzeko delibrazio-prozesuan. Hori horrela, prozesuaren protokoloak horri buruzko helburuak ezarri zituen, eta «**estrategia eta generoa**» izeneko **berariazko saio bat** sortu eta antolatu zen.

Saio hori planteamendu tematikoagatik bereizten da gainerakoetatik. Strategiaren genero inpaktuari buruzko azterketa egiteko sortua da, eta, horretarako, bertaratu diren eragileak ez dira horrenbeste gerturatu estrategiaren igurikimentera, baizik eta haien begirada profesionalak eginiko ekarpen mamitsuena izan da **genero arakala murrizteko potentzial handiena duten tokiko energiako ekintza esparruak esploratzea**. Saioaren xedea eta iraupena kontuan hartuta, eta deitutako pertsona kopuru aintzat hartuta, aurrez aurre egin ahal izan zen, eta hori oso egokia izan zen bertaraturitakoek egin beharreko gogoeta ahaleginerako. Saioaren dokumentazioa eta dinamika antolatzeke, honako galdera hauek planteatu ziren, erantzuna guztien artean erabakitzeke:

- 1.- *Behatokia eta Strategiaren Azterlanak* eremuari dagokionez (1.1.2 eta 1.3.1 ekintzak, batez ere):



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Zein izan beharko lirateke gure lehenetasunezko eremuak sexuaren arabera bereizitako datuak lortzeko dagokionez?

2.- *Kide anitzeko organoak eta energiaren tokiko gobernantza* hizpide harturik (1.2.2, 1.6.1 eta 1.7.10 ekintzak):

Nola txertatu, modu praktikoan, emakumeen ikuspegia Gipuzkoako energiaren tokiko gobernantzan?

1.- *Herritarrek informatzeko eta aholkatzeko erremintak eta zerbitzuak* eremuari dagokionez (1.4.1 eta 1.4.1 ekintzak, batez ere):

Nola hautsi rolak eta nola lortu emakumeen artean interesa piztea energia berriztagarriei, ibilgailu elektrikoari eta abarrei buruzko erabakiak hartzean?

4.- *Planei, proiektuei eta komunitate energetikoei emaniko dirulaguntzei* dagokienez (1.2.1, 1.2.3 eta 1.4.4 ekintzak):

Nola lan egin laguntzen hartzaileekin ezarritako eskakizunak izapide huts izan ez daitezten?

5.- *Prestakuntza espezializatuko, laneko eta tokiko ekonomia*ko aukerak eremuari dagokionez (1.4.3, 1.6.1, 1.6.2 eta 1.6.3 ekintzak):

Nola hautsi rolak eta nola lortu emakumeen interesa piztea diziplina esparru zabalago batean?

Horietan guztietan, ibilbide kritikoak egin zen esku artean diren datuen, hautemandako oztipoen eta asmoen gainean (estrategian sartutako genero neurriak):

Saio honetan, ez da egin departamentu sustatzailearen eta agente parte hartzaileen arteko alde biko elkarriketa, baizik eta gerturatzeko ariketa bat egin dute tokiko energiaren «sektorialitateari» ez dagokion arazo batera, zeinaren gakoak ez baitaizka nahitaez departamentuak. Nolanahi ere, baterako ikaskuntza prozesu bat proposatu dute, **Gipuzkoako emakumei ahalik eta inaktu positibo handiena ekartzeko estrategiako ekintzen garapen aldian energiarekin duten harremanean**, eta, zehazkiago, 2021-2030 aldian.

Aketan kontsulta daiteke bertaraturitako enkarpenen aberastasuna. Jarraian, laburpen bat jasoko da:

ERAGILEA	BEHATOKIA ETA AZTERLANAK	KIDE ANITZEKO ORGANOKAK ETA GOBERNANTZA	TRESNAK ETA ZERBITZUAK	LAGUNTZA EKONOMIKOAK	PRESTAKUNTZA ETA LAN AUKERAK
Raquel Sanz SIIS FUNDAZIOA	- Garrantzitsua da datuak sexuaren arabera ez ezik parametro posible guztiak kontuan hartuta ere bereiztea, bai eta diagnostiko hobekak	- Emakumeen presentzia eta genero ikuspegia bereiztearen garrantzia zehazten du. Presentzia orokatuak ez du bermatzen genero ikuspegia sartzea, emakumeek zein		- Kontratuaren titulartasunaren gaia, abizenen ordenarekin gertatzen den bezala, dinordetzan jasotako ohitura kontua da, eta zaila	



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

	<p>lortzeko analisi integralak egitea ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pobrezia energetikoa hainbat faktorek eragiten dute. - Epe luzerako politikak behar dira, ez laguntza ekonomikoak bakarrik. - Badira ikasleen estatistika orokorrak. <p>Emakume gehiago daude Batxilergoan Lanbide Heziketan baino.</p>	<p>gizonek izan behariko luketen ezagutza espezifikoa baita.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adierazi du garrantzitsua dela foro, mahai eta abarretan moderatzaileak garapen zer-nolakoak izaten den kontuan hartzea; izan ere, askotan, emakumeek ez dute parte hartzen segurtasun ezagatik. 		<p>da aldatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dirulaguntzen klausulei dagokienez, genero ikuspegia sartzea arbuatzen duten alderdiak ez sartzea eskatu du. <p>Adierazi du oreka bilatu behar dela, nahiz eta, aldi berean, emakumearen inklusioa sustatu edo sentzibilizatu.</p>	
<p>Beatriz Álvarez Lankideta eta Generoko aditua</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Errealitatean murgiltzeko, beste datu batzuk ikusi behar dira, ez gizonei eta emakumei buruzkoak bakarrik. - Begirada kualitatiboa behar da. - Lehentasun eremua: emakumeek energiaren alorreko negozio nitxo berriak eskuratzeko eta erabakiak hartzeko posizioa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gobernantza organo horietan erabakiak hartzeko, adierazi du garrantzitsua dela aldez aurretik generoari buruzko azterlanetan eta analisisetan oinarritzea. - Halaber, garrantzitsua da berdintasun gaitetara bideratutako teknikiariak eztabaidarako eta erabakiak hartzeko prozesuan sartzea. - Generoaren gaia organo horien agintaldian sartuta egoteko beharra. 	<ul style="list-style-type: none"> - Estrategian jasotzen da emakumeak ahalduntzea sustatzeko tailerrak egin behar direla, baina agian ez du hala izan behar, emakumeen egungo rola irauarazten baita eta adiztera ematen baita beti dutela ahalduntzeko premia. Eraginkorragoa izan liteke gizonen emakumeek etxean beren gain hartutako rolei buruzko tailerretan parte har dezaten sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Adierazi duenez, genero ikuspegia ez litzateke diskriminatzailea izan behar klausuletan, baizik eta proiektua baloratzeko orduan genero ikuspegia ikusaraztea ahalbideetuko duen tresna bat. 	
<p>Oihana Olloquegui GO2 Arquitectura</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Emakume gehiago joaten dira birgeitze energetikoko tailerretara, agian haiek artatzen dutelako etxea dagoen-dagoenean eta ahalik eta gutxien nola gastatu ikasi ahal izateko. 		<ul style="list-style-type: none"> - Bat dator adieraztean etxeko barnealdearen kudeaketa emakumearen rola dela, eta gai teknikoak (auto elektrikoak, eta abar), berriz, gizonen esku daudela. 		



	<p>- Sexuen arabera berezitako datuek agerian uzten dute errealtatea. - Emakumeak errazago sar daitezke energia berriztagarrien tokiko eremura energiaren esparru globalera baino.</p>		<p>- STEAM metodologia aipatu du jokoan bidez rolak hausteko. - Sentsibilizazio kanpainen garrantzia adierazi du.</p>		
<p>Marta Ruiz Aguayo GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERDINTASUN ORGANOA</p>	<p>- Enpleguaren esparruaren garrantzia adierazi du. Estrategiak sortuko diren enpleguei buruz hitz egiten du, baina gaineratzen du garrantzitsua dela jakitea zein neurritan egongo diren feminizatuta.</p>		<p>- Rol horiek hausteko, lan handia dago egin beharra; izan ere, etxean modu batean hezten bada ere, gizarteko rolek, estereotipoek edo hizkerak maskulinitzua izaten jarraituko du, eta horrek uste baino eragin handiagoa du. - Ez du uste emakumeei gutxiago interesatzen zaizkien berriztagarriak. Agian arazoa ez da gutxiago interesatzen zaiela, baizik eta beste faktore batzuk ere egon daitezke, hala nola gaitasun gutxiago izatea, segurtasunik eza, eta abar, eta horrek justifikatuko lituzke partaidetza zifrak.</p>		
<p>Gloria Moya ZUBIGUNE FUNDAZIOA</p>	<p>- Haien mila ikasleen datuak ez daude sexuaren arabera berezita (Eusko Jaurlaritzako matrícula eta datuak babesteko</p>	<p>- Adierazi du garrantzitsua dela erreferenteak izatea, emakumea gobernantzan sartzeko.</p>	<p>- Hezkuntza arrakala oso handia da. Beharrezkoa da gizon/emakume eginkizunen rola haustea, baina ez daki nola egin,</p>	<p>- Planteatzen da ea onuragarria den emakumea lan eremuan sartzeko enpresek finantzaketa handiagoa jasotzea</p>	<p>- Eskolako orientazio zerbitzuek garrantzi handia dute. - Aiten eta amen garrantzia nabarmentzen du, ikasleek ez</p>



<p>legearen arabera). - Ez daki legez matrikulazioen datuak sexuaren arabera jaso daitezkeen. Beraz, ez du daturik.</p> <p>- Galdera hori izena emateko orduan sartuko balitz, besteak beste, tokiko azterketa esparru manitsua lor liteke.</p> <p>- Nahiz eta estatistikak badauden, ez dago daturik zentro espeziifikoaren arabera banakatuta.</p> <p>- Lanbide iturri ona da.</p> <p>- Bulego teknikoko lanetarako prestakuntzan (proiektugileak) eta administrazioan, ikasle gehienak emakumezkoak dira. Hala ere, apenas dagoen emakumerik elektrizitatea edo eskuzko instalazio lanak barnean hartzen dituzten zikloetan.</p>		<p>- Bere esperientzia kontuan izanik, maila teknikoan emakume gehiago aurkitzen ditu, baina obra egikaritzen gizonak jarduten dute.</p>	<p>- Bat dator etxean eta ikastetxeetan hezkuntzak duen garrantziarekin, eta, adibide gisa, 50/50 programak dakarren aukera jartzen du.</p>	<p>emakume bat kontratatzeagatik gizon bat kontratatzeagatik baino.</p> <p>- Genero ikuspegia sarzea eta dirulaguntzei egiten zaizkien beste eskakizun batzuk alderatzen ditu, hala nola proiektuaren amaierako komunikazioa eta logoen erabileria.</p> <p>Estandarizatu egin beharke lirateke generoaren gairako irizpideak.</p>	<p>dezaten izan mugarik zer ikasi nahi duten eta zer egin nahi duten aukeratu ahal izateko. STEAM metodologia aipatu du jokoan bidez rolak hausteko.</p> <p>- Titulatu berririk enpresetara bidaltzen dituztenean, horien erreakzioa askotarikoa da: batzuek irabazian bakarrik pentsatzen dute, emakume bat kontratatzeagatik dirulaguntzaren % 10 gehiago jasoko dutela; beste batzuek, berriz, emakume bat kontratatzeagatik langileak deskontzentratu egingo direla.</p> <p>- Egocera horiek tradizioz jasotako rolen ondorio dira. Gai horrekin eta prestakuntza ibilbidearekin lotuta, gaineratu du galdara bat gizonak zein emakumeek sal dezaketela, baina instalazioa, normalean, gizonak egiten dutela.</p>
<p>Andrea Estornés</p>	<p>- Bizitegi sektorean genero informazioa lortzeko, etxebizitzetako energia ziurtagiriaren datuak gurutatu daitezke udalen gizarte laguntzaren datuekin.</p> <p>- Finken administrazioaileak iturri izan daitezke</p>				



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

<p>Maite Arana LARRAULGO ALKATEA</p>			<p>- Zailantza agertu du egin diren sentsibilizazio kanpainen aurrean. Haurrek etxean hartzen dituzte rol horiek, eta, agian, kanpaina horiek gurasoei zuzenduta egon beharko lukete.</p>	<p>- Baieztatzen du emakumeek ikusezin egiten direla gizonekin egiten diren bilereetan edo guneeetan, sektorea eta eremua edozein izanik ere. Gaineratu du, adibidez, bere udalerriko nerabeen artean ere antzeman duela arazo hori. - Larraulen autokontsumorako komunitate energetikoa antolatzen ari dira. Ia informazio bilera guztietan, parte hartzaileen % 40 emakumeak ziren, eta gizonezkoak, berriz, % 60. - Gizonak nagusiki gai teknikoengatik galdetzen dute, eta emakumeek gai partikular eta praktikoenengatik. - Emakumeek gutxiago hitz egiten dute talde bilereetan, baina kontsulta pertsonalizatu gehiago egiten dituzte. - Kontratuaren % 90 gizonen izenean daude. Emakumeek bilatzen dituzte aukerarik onenak, eta haiek arduratzen dira eguneroko kasuistikaz. - Kontuz ibili behar da</p>	
--	--	--	---	--	--



Garbiñe Olaberria Gipuzkoako Foru Aldundia		<p>- Tokiko gobernantzari dagokionez, energia komunitateek, berriztagarriak sortzeaz gain, etxeko kontsumoaren kudeaketa aldatzea ere ekarriko dute, eta, hori hala baldin bada, gerta liteke emakumeen erabakitzeko ahalmena eta inplikazioa areagotzea.</p>	<p>- Ikastetxeetako orientazio zerbitzuek funtsezko zeregina izan lezakete tradizioz maskulinoak izan diren sektore horiek feminizatzeke orduan. - Adierazi du energia aurrezteko eta energia birgaitzeko ikastaroetan gizonen eta emakumeen parte hartzea % 50 ingurukoa izan dela, baina berriztagarrien ikastaroetan % 60 gizonak izan direla eta mugikortasun elektrikoan, berriz, % 76. Adierazi du, halaber, aurrez aurreko talerretan gizonen eta emakumeen parte hartzea antzekoa izan bada ere, sareko bost talerretan 230 pertsonak parte hartu dutela eta emakumeak % 33 baino ez zirela.</p>	dirulaguntzen klausuletan generoaren gaia balioesten denean; izan ere, baldintzatzaile bat baldin bada emakumeak izatea kontratuen titular, zaila izango da baldintza hori betetzea.	
Nieves Lazcano Gipuzkoako Foru				- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen	



Aldundia			Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzak udalentzat edo administrazioarentzat dira; ez daki nola sartu genero ikuspegia laguntzen oinarrietan.	
----------	--	--	--	--

Oso interesgarria izan da egindako kontrastea. Kasu honetan ere, ekintzen fitxek idazkera zabala eta irekia dute, eta adierazitako ideiek ez diote mugarik jartzen etorkizuneko garapenari; beraz, ez da beharrezkoa testuak aldatzea. Nolanahi ere, konpromisoa ekintzaren garapenean kontuan izatearekin lotuta dago, gutxienez abiapuntu gisa, aurreikusitako genero neurriak hobeto enfokatu ahal izateko (6. atala – C zatia).

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

1.2.15.- DELIBERAZIO SAIOA: ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA.

Eguna: 2021/07/05

Formatua: Online (Teams)

Parte hartzaile kopurua: 3 (3 gizon)

Erakunde kopurua: 1

Ekarpenen kopurua: 2

Ekarpenen analisia:

Energiaren Euskal Erakundeko ordezkariak adierazi zuten komenigarria zela helburuen taulako zenbait datu berrikustea (3E2030 eta EUSKADI KLIMA 2050). Testuak berrikusi egingo dira, adierazitakoari jarraikiz.

Eskertzeak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.



1.2.16.- HERRITARREK BEREN KONTURA IZANIKO PARTAIDETZA

Ekarpenak: Arantxa Napal - Hernani

Mugikortasunarekin loturiko ekarpena egin du. Bidegorria eta espaloia behar direla adierazi du.

Ekarpen hori ez dago lotuta estrategiaren eskumen eremuarekin.

Ekarpenak: Alberto García Collado

García jauna apirilaren 28ko informazio jardunaldian izan zen. Ezin izan zuen joan bere eskualdeko saiora (Debabarrena), goizeko ordutegia ez baitzetorkion ondo. Talde ekologistekin bat egitea eskaini zitzaion (arratsaldez), baina, azkenean, talde haietako batek ere ez zuenez baieztautu parte hartzea, bertan behera utzi behar izan zuten, eta, beraz, ez zen aukerarik izan.

Azkenik, idatziz helarazi ditu ekarpenak. Idatzi haren arabera:

- Aurkezpenean ikusitako «oso axalekoa eta gainekoa» dela adierazten du.
- Haren ustez, ekarpenak egiteko bidali zitzaion inprimakia estrategiara egokituta dago, eta, beraz, uste du ez daukala sakontasunik.
- Horregatik guztiagatik, bere proposamen dokumentua bidali du, eta gaineratu du badakiela Foru Aldundiaren eskumenetik kanpo daudela hainbat alderdi, baina, hala ere, kontuan hartu beharke liratekeela estrategia bera hobeto definitzeko.
- Adierazi du munduko egoera larria dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako plana eskasa dela. Laburbilduz, bere ustez, estrategiaren proposamena honako hau da:
 - Efficienteagoak izatea (tailerretan zein etxetan).
 - Autokontsumoa sustatzea
 - Mugikortasuna elektrifikatzea.
 - Besterik ez.
- Adierazten du proposamenak ez duela eredu aldutzen, gauza berak egiten jarraitzen dugula, baina modu «berdeagoan», gure bizimodua ia ezertan aldatu gabe.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak partekatzen duen dokumentuko berotegi efektuko gasen isurien grafikoak ikusita, garrarioa eta industria lehentasunezko sektoreak direla adierazi du, isurketen % 74 baitira.



- Gure egoera eta plan honen epea ikusita, adierazten du beharrezko ekintza ausartak eta erabat iraultzaileak espero zituela. Ildo horretan, aurkitu duena, bere ustez, burokrazia hutsa da.
- Helburuak lortu nahi badira, bere ustean jomuga zehatzak izan behar dira buruan.
- Azkenik, hainbat gairi buruzko helburuen eta proposamenen zerranda zabala aurkezten du: murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea eta berreskuratzea; energia berriztagarriak industrian; baso kudeaketa eta karbono hustutegiak; mugikortasuna eta garraioa; etxebizitzako energia efizientzia; edukiontziak berrerabiltzea; haragi kontsumoa murriztea; km0 estrategia; baratze ekologikoak, nekazari txikiak konposta erabiltzea; nekazaritza ekologikoa...
- Haren ustean, aurkeztutako proposamenak, gehienez ere, 10-15 urteren buruan egin behariko lirateke.

Departamentuaren proposamena egokia iruditu ez bazaito ere, eskertzekoa da herritar gisa agerturiko interesa eta ekarpenak helarazi izana. Hain justu ere, gai gehienak ez dira aurkeztutako estrategiaren esparrukoak; horietako asko, gainera, ez daude departamentuaren eskumenen artean. Hala ere, strategiaren ekintza eremuarekin zerikusia duten ekarpenen kasuan, prozesuan parte hartu duten gainerako eragileek emandako proposamenekin batera gaineratuko dira, ekintzaren garapenean kontuan hartzeko, gutxienez abiapuntu gisa.

1.2.17.- DELIBERAZIO SAIOAK BARNE ERAGILEEKIN

FORU ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEN ARTEKO BATZORDEA

Eguna: 2021/05/27

Formatua: mistoa

Parte hartzaile kopurua: 28 (emakume 13 eta 15 gizon)

Ekarpenen kopurua: 1

Ekarpenen analisia



Parte hartzeko delibrazio prozesuaren garapenari buruz galdetu eta interesa agertu da, bai eta jasotako ekarpenen gainean ere. Bileran eman zen horren berri, baina Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza Nagusiak dagoeneko argitaratu ditu prozesuaren emaitzen txostena eta aktak egoitza elektronikoa, eta jakinarazpena ere helarazi die parte hartu duten erakunde eta pertsoneri.

Foru Aldundiko Departamentuen arteko Batzordean aurkezteaz gainera, banan-banan jakinarazi zaie foru departamentu guztiei. Halaber, Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeko (Foru Sektore Publikoa) kideek aurkezpen espezifiko izan dute horretarako deitutako bilkuran (ikus hurrengo saioa, 2021/06/16koa).

Eskertzekoak dira proposamenarekin izaniko interesa eta eginiko ekarpenak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO JASANGARRITASUN ENERGETIKOAREN BATZORDEA (FORU SEKTORE PUBLIKOA)

Eguna: 2021/06/16

Formatua: online (Zoom)

Parte hartzaile kopurua: 9 (emakume 4 eta 5 gizon)

Ekarpenen kopurua: 0

Batzorde horrek erreferentzia gisa baliatzen dituen dokumentuak, tresnak eta betebeharrak (helburuak, epeak, eta abar), pentsatzekoa denez, EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 04/2019 Legean ezarritakoak dira. Lurraldearen gaineko jardunarekin batera (1.1 eta 1.6 bitarteko jarduera ildoak), estrategiak berez biltzen du Foru Sektore Publikoaren gaineko ekintza (1.7 ildoak), baita departamentuaren aurrekontuak konprometitzuz ere ondorio horietarako; hala eta guztiz ere, definitu egingo dira Foru Sektore Publikoari lotutako ekintzak, inbertsioak eta erabakiak, legeak xedatutako dokumentu eta tresna diren heinean. Dena den, beharrezkotzat jotzen da batzordeko kideei estrategiaren edukien berri ematea eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten bermatzea.

NATURKLIMA-GIPUZKOAKO KLIMA ALDAKETAREN FORU FUNDAZIOA



Eguna: 2021/06/30

Formatua: Aurrez aurrekoa

Parte hartzaile kopurua: 1 (gizon 1)

Ekarpenen kopurua: 1

Txostenean aurrez adierazi den bezala (beste eskualde batzuen bilera, 2021/06/14koa) Naturklima foru erakundeari dagokion ekimena da % 100ean, publikoa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuari atxikita dago. Haren eginkizunen zati bat klima aldaketaren Gipuzkoako behatokia garatzearekin dago loturik. Era berean, baditu beste bi funtzio ere: bata, ekonomia zirkularraren arloko proiektu berritzaileak bultzatzera bideratua, eta, bestea, energia berriztagarrien bultzadarekin batera doana; izan ere, ulertzen da bi arintze estrategia erabakigarri direla, zeinak klima aldaketaren aurkako borrokaren parte garrantzitsua baitira. Departamentuaren ustean, fundazioak, eragile bideratzaile eta sustatzaile gisa, lagundu dezake esparru pribatuarekiko harremanean berriztagarriak lurraldean ezartzeko proiektuak azkarago hedatzeko orduan, baina Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin erabat koordinatuta. Gipuzkoako gobernantza energetikoaren eskemaren (5. atala – C zatia) eta estrategia honetako 1.2.3, 1.6.1, 1.6.2 eta 1.6.3 ekintzen bidez zehaztu nahi da zer-nola zabalduko den Ingurumen Zuzendaritzarekin lankidetzan jarduteko eredu hori etorkizunean.

Naturklima proposatutako ekintzak garatzen laguntzeko prest agertu da erabat.

Donostian, 2021eko uztailaren 30ean,

JASANGARRITASUNEKO ATALBURUA

Beatriz Marticearena San Agustín

